Finantza pasiboaren tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak / Cobros y pagos por instrumentos de pasivo financiero		(95.519)	(20.452.554)
• Jaulkipena / Emisión:		<u>2.318.349</u>	-
• Kreditu erakundeekiko zorrak / Deudas con entidades de crédito	17	-	-
• Beste zenbait zor / Otras Deudas.		<u>2.318.349</u>	-
• Honako hauek itzuli eta amortizatzea / Devolución y amortización de:		<u>(2.413.868)</u>	<u>(20.452.554)</u>
• Kreditu erakundeekiko zorrak / Deudas con entidades de crédito	17	-	(18.530.846)
• Beste zenbait zor / Otras deudas		(2.413.868)	(1.921.708)
Finantza jardueren eskudiru fluxuak / Flujos de efectivo de las actividades de financiación		34.863.749	8.868.246
ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA / AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES		75.501.219	18.421.768
Ekitaldiaren hasierako eskudirua edo baliokideak / Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio	12	82.158.828	63.737.060
Eskudirua edo parekoa urtaldiaren amaieran / Efectivo o equivalentes al final del ejercicio.	12	157.660.047	82.158.828

Erantsitako txostenean azaldutako 1-25 oharak 2023ko abenduaren 31n amaitutako eskudiru fluxuaren egoera-orriaren zati dira.

Las Notas 1 a 25 de la memoria adjunta forman parte integrante del estado de flujos de efectivo correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2023

9. SOZIETATEAREN JARDUERA

VIRESA Vivienda y Suelo de Euskadi S.A.U. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.U. (hemendik aurrera, sozietatea edo VIRESA) azaroaren 21eko 258/89 Dekretuaren bidez sortu zen, sozietate anonimo izaeraz, eta 1990eko otsailaren 12an eratu zen, eskritura publikoaren bidez, Gasteizen. Sozietatearen egoitza Gasteizen du, Gamarrako Ateko 1A zenbakiko 2. solairuan.

Hau da sozietatearen helburua:

- I. Etxebizitzak, lehenasunez babes ofizialekoak, sustatu eta birgaitzea, c) atalak xedatzen duenari kalterik egin gabe. Jarduerak honako hauek barne hartzen ditu:
 - a) Bizitegi-lursailak eta higiezinak planifikatu, urbanizatu, partzelatu eta eskuratzea, erakunde publikoenak zein partikularrenak izan, edozein forman eta prozeduran, etxebizitzak sustatzeko eragiketak gauzatzeko helburuarekin.
 - b) Mota guztietako obra, azterlan, proiektu eta mantentze- eta kudeaketa-lanak, ekipamendu komunitarioarekin, lursailen urbanizazioarekin eta etxebizitzaren eraikuntza eta birgaitzearekin zerikusia dutonak, adjudikazioa eta kontratatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-eskakizunekin eta lurralde-ezaugarriekin bat etorritik, erakunde eskudunei eta horretarako legitimatutako adjudikaziodunei sozietateak kudeatutako eta sustatutako etxebizitzak zein ekipamenduak libreki erabiltzeko bide emateko.
 - c) Kontratuaren bidez, edozein enpresa edo erakunde publikori laguntza teknikoko prestazioak eta bere izaeraren eta jardueraren berezko zerbitzuak ematea.
- II. Etxebizitza-eragiketarako birgaitze-jarduketak guztiak gauzatzeko, bai lurzorua eskuratu eta prestatzekoak, multzo historikoak edo arkitektura-multzoak eta abar antolatu eta kontserbatzekoak eta, bereziki, badauden etxebizitzak, edozein sustapen-moduan, birgaitzekoak.

1. ACTIVIDAD DE LA SOCIEDAD

VIRESA, Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.U. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.U., en adelante, la Sociedad o VIRESA, fue creada mediante el Decreto 258/89, de 21 de noviembre, con la consideración de Sociedad Anónima y constituida, mediante escritura pública, en Vitoria-Gasteiz el 12 de febrero de 1990. Su domicilio social se encuentra en Vitoria-Gasteiz, Portal de Gamarra, 1 A - 2ª Planta.

La Sociedad tiene por objeto social:

- I. La promoción y rehabilitación de viviendas, preferentemente de protección oficial, sin perjuicio de lo que prevé el apartado c). Dicha actividad comprende:
 - a) El planeamiento, urbanización, parcelación y adquisición de terrenos residenciales e inmuebles ya sean de entes públicos, y/o de particulares, bajo cualquier forma y procedimiento, con destino a operaciones de promoción de viviendas.
 - b) La adjudicación y contratación de toda clase de obras, estudios, proyectos y trabajos de mantenimiento y gestión relacionados con el equipamiento comunitario, la urbanización de terrenos y la construcción y rehabilitación de viviendas, adecuadas a las exigencias sociales y características territoriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, facilitando a los organismos competentes y a los adjudicatarios legitimados al efecto la libre disponibilidad de las viviendas, equipamientos gestionados y promovidos por la Sociedad.
 - c) Proporcionar mediante contrato, a cualesquiera empresas o entes públicos prestaciones de asistencia técnica y servicios propios de su naturaleza y actividad.
- II. Todas las actuaciones de rehabilitación con destino a operaciones de vivienda, ya se refieran a adquisición y preparación de suelo, ordenación y conservación de conjuntos históricos o arquitectónicos, etc., y, en particular, la rehabilitación, bajo cualquier forma de promoción, de viviendas ya existentes.

- | | |
|---|--|
| <p>III. Hirugarrenei laguntza teknikoko prestazio ordainduak ematea eta zerbitzu teknikoak, ekonomikoak, industrialak, komertzialak, komisiozkoak edo bere izaera eta jarduerarekin zerikusia duten beste edozein egitea.</p> <p>IV. Mota orotako ondasunak, higigarriak zein higiezinak, eskuratu eta saltzea eta horien gainean behar bezala eraikitzea, aurreko puntuetan aipatutako helburu eta jardueretarako beharrezkoak edo komenigarriak badira.</p> <p>V. Errentamendu-araubidean, gizarte-ondarekoak diren etxebizitzak eta edozein lagapen-tituluren bidez alokatzeko helburuarekin atxikitzen zaizkionak kudeatzea.</p> <p>VI. Energia-eraginkortasuna hobetzearekin zerikusia duten energia-zerbitzuak ematea, nagusiki bere etxebizitza-sustapenen eremuan. Zerbitzuok hauek barne har ditzakete: energia hornitzea eta merkaturatzea, energia-ekoizle edo -merkaturatzaileei erosiz, energia-kudeatzea eta kontsumo-instalazioak mantentzea; hori guztia, berak zuzenean edo beste sozietate batzuetan parte hartuz, aipatutako partaidetza-sozietateen kudeaketa, zuzendaritza eta administrazioa barne.</p> | <p>III. La ejecución retribuida, para terceros, de prestaciones de asistencia técnica y la realización de servicios técnicos, económicos, industriales, comerciales, de comisión o cualesquiera otros relacionados con su naturaleza y actividad.</p> <p>IV. La adquisición y venta de toda clase de bienes, muebles o inmuebles, y la construcción o edificación adecuada sobre ellos, que sean precisos o convenientes a cualquiera de los fines y actividades reseñados en los puntos anteriores.</p> <p>V. La gestión, en régimen de arrendamiento, de viviendas pertenecientes al patrimonio social y de aquellas otras que le fueren adscritas por cualquier título de cesión, para esta misma finalidad locataria.</p> <p>VI. La prestación de servicios energéticos relacionados con la mejora de la eficiencia energética, principalmente en el ámbito de sus promociones de vivienda, que pueden comprender el suministro energético y su comercialización mediante su adquisición a productores o comercializadores de energía, la gestión energética, la operación y el mantenimiento de las instalaciones consumidoras, todo ello directamente por si misma o a través de su participación en otras sociedades, incluyendo la gestión, dirección y administración de las citadas sociedades participadas.</p> |
|---|--|

Zehatz-mehatz, VISESA Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak etxebizitza babestuak sustatzeko duen tresna da.

Etxebizitza babestuetarako sarbidea, bai salmentan bai alokairuan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak zehazten du, Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren bidez eta sailburuaren aginduen arabera, sozietateari sustapen jakin batzuetan zuzenean adjudikatzea ahalbidetzen baitiote.

En concreto, VISESA es el instrumento del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco para la promoción de viviendas protegidas.

La determinación del acceso a las viviendas protegidas, tanto en venta como en alquiler, es efectuada por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, a través de su Servicio Vasco de Vivienda – Etxebide, y conforme a las órdenes del Consejero que permiten a la Sociedad la adjudicación directa en determinadas promociones.

Sozietatearen jarduera Etxebizitza Plan Zuzendariaren esparruan

- *Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea 2021-2023*

2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzailearen xedea etxebizitza duin eta egokia behar duten pertsonen erantzun integrala bermatzea da, eta, horretarako, alokairu eskuragarria eta egungo bizitegi-parkearen bizigarritasun-eta iraunkortasun-baldintzak hobetzera bideratutako baliabideen eskaintza handitzea.

Era berean, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatuko duten prestazioen sistema ezartzea eta finkatzea du helburu, alokairu eskuragarria bideratutako etxebizitza-parkearen hazkundera eta kohesio soziala erraztuz eta etxebizitza-parke publiko eta pribatuaren birgaitzea sustatuz, Europako funtsak optimizatzen birgaitze-politiketan aldaketa estrategiko bat eginez eraikinen kalitateari eta bizigarritasunari, birgaitze integralari, irisgarritasunari, efizientzia energetikoari eta klimaren inpaktuaren murrizketari dagokienez.

Horretarako, honako ardatz hauek jorratzen ditu: 1) alokalru babestua sustatzearen aldeko apustua indartzea, 2) jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko programak indartzea (Bizigune eta ASAP), 3) Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren aitorpenean aurrera egitea, 4) birgaitze-politikan garapen kuantitatibo eta kualitatiboa lortzea, birgaitze integrala biziki sustatuz, baita irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa, ere. 5) Alokairuaren eskaintza handituko duen fiskaltatearen aldeko apustua egitea, prezioak kontrolatzea eta birgaitzeari kenkariak optimizatzea ahalbidetuko duena.

- *"Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta VISESAren arteko harremanak arautzen dituen programa-kontratua"*

2002ko ekitaldiaren amaieratik, orduan indarrean zegoen Etxebizitza Plan Zuzendaria 2002-2005 delakoaren barruan, eta

Actividad de la Sociedad en el marco del Plan Director de Vivienda

- *Plan Director de Vivienda 2021-2023*

El Plan Director de Vivienda 2021-2023, tiene como misión garantizar una respuesta integral a las personas con necesidad de una vivienda digna y adecuada, incrementando la oferta de recursos destinados tanto al alquiler asequible como a la mejora de las condiciones de habitabilidad y sostenibilidad del parque residencial existente.

Así mismo tiene como objetivo la implementación y consolidación del sistema de prestaciones que garanticen el Derecho Subjetivo a la Vivienda, facilitando a la vez el crecimiento y la cohesión social del parque de viviendas destinadas a alquiler asequible, y haber impulsado la rehabilitación del parque residencial público y privado optimizando los fondos europeos a través de un cambio estratégico en las políticas de rehabilitación en torno a la calidad y habitabilidad de las edificaciones, la rehabilitación integral, la accesibilidad, la eficiencia energética, la reducción del impacto climático y la innovación.

Para ello aborda los siguientes ejes: 1) reforzar la apuesta por la promoción en alquiler protegido, 2) reforzar los programas de movilización de vivienda deshabitada (Bizigune y ASAP), 3) Avanzar en el reconocimiento del Derecho Subjetivo a la Vivienda, 4) Lograr un salto cuantitativo y cualitativo en la política de rehabilitación fomentando intensamente la rehabilitación integral, la accesibilidad y la eficiencia energética y 5) Apostar por una fiscalidad que aumente la oferta de alquiler, que favorezca el control de precios y optimice las deducciones a la rehabilitación.

- *"Contrato- Programa regulador de las relaciones entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y VISESA"*

Desde finales del ejercicio 2002, dentro del entonces vigente Plan Director de Vivienda 2002-2005, y considerando el importante papel

sozietatearentzat aurreikusten zen jarduketa-zeregin garrantzitsua kontuan hartuta, komenigarritzat jo zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak agindutako sustapen bakoitzerako hitzarmenak banaka sinatzeko sistema, ordura arte erabilitakoa, birplanteatzea eta horren orde harreman juridiko eta ekonomikoei buruzko esparru-akordio bat baliatzea, plan horrek gorde zizkion helburuei eraginkortasunez heltzea ahalbidetzen zutenak; "Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta VISESA sozietate publikoaren arteko harremanak arautzen dituen programa-kontratua" izena hartu zuen (hemendik aurrera, programa-kontratua). Programa-kontratu horri esker, orduz geroztik, jasoko diren diru-laguntzak aurretik zehaztu ahal dira. Helburu horrekin sinatu dira urteko kontu hauei eragiten dieten jarduketak eta sustapenak sortu dituzten programa-kontratu guztiak. 2023ko ekitaldian, Kontratu Programa berria onartu zen.

- *Lurzorua eskuratzeko eta gero saltzeko araubidea*

Sozietateak higiezinaren sustapenaren arloan eta Etxebizitza Plan Zuzendarien esparruan gauzatzen duen jarduketa publikoa denez, sozietateak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari erosten dizkio, prezio sinbolikoan, lursailen eta orubeen gaineko azalera-eskubideak, gero horietan sustapenak garatzeko; hala ere, sozietateak beste erakunde batzuei edo hirugarrenei erosi ahal die lurzorua jabetza osoan. Sustapenen salmenta, horiek amaitutakoan, etxebizitzaren erosleari aipatutako azalera-eskubidea besterentzean oinarritzen da edozein kasutan. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak 75 urteko epean ematen du azalera-eskubidea, Jabetzaren Erregistroan inskribatzen denetik. Epe hori bukatzen denean, hasiera batean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eraikitakoa kalte-ordainik gabe bereganatuko luke eta orduan iraungitako azalera-eskubidearen gaineko eskubide pertsonalak edo errealak indargabetuta geratuko lirarteke.

de actuación que se preveía para la Sociedad, se consideró conveniente, replantear el sistema de suscripción individual de Convenios para cada una de las promociones encomendadas por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, empleado hasta ese momento, y su sustitución por un acuerdo marco de relaciones jurídicas y económicas que permitiesen abordar con eficacia los fines que le había reservado dicho Plan, y que toma por nombre "Contrato-Programa regulador de las relaciones entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y la Sociedad Pública VISESA", (en adelante Contrato-Programa). Dicho Contrato-Programa permite, desde entonces, predeterminedar las subvenciones que se percibirán. Con este objetivo, se han ido firmando los distintos Contrato-Programas cuyas actuaciones, promociones y actuaciones afectan a las presentes cuentas anuales. En el ejercicio 2023, se ha aprobado un nuevo Contrato-Programa.

- *Régimen de adquisición y posterior venta de suelo*

Como consecuencia de la naturaleza pública de la actuación de la Sociedad en el campo de la promoción inmobiliaria, y en el marco de los Planes Directores de Vivienda, la Sociedad adquiere habitualmente, del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, a un precio simbólico, los derechos de superficie sobre terrenos y solares sobre los que posteriormente se desarrollan las promociones; no obstante, la Sociedad puede adquirir suelo en plena propiedad a otras entidades públicas y/o a terceros. La venta de las promociones, una vez finalizadas, se basa en todo caso en una transmisión al comprador de las viviendas del citado derecho de superficie. El plazo por el que la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco concede el derecho de superficie es de 75 años, a partir de su inscripción en el Registro de la Propiedad. A la terminación de dicho plazo, en principio, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco haría suyo lo edificado sin indemnización alguna, quedando resueltos los derechos personales o reales existentes sobre el derecho de superficie entonces extinguido.

- *Etxebizitzen babes-araubidearen iraupen-epea*

Babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioa 2002ko abenduaren 31 baino lehendik duten etxebizitzek abenduaren 26ko 306/2000 Dekretuari, babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoari, men egin behar diote; horren arabera, babes-araubidearen iraupen-epea 20 urte igarotakoan amaituko da, dagokion behin betiko kalifikazioa ematen den egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, babes ofizialeko araubidea, hala badagokio, emandako finantza-neurriak guztiz amortizatu arte luzatuko da.

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzako behin-behineko kalifikazioa 2002ko abenduaren 31ren ostean jaso duten etxebizitzek abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuari, babes ofizialeko etxebizitzen araubideari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoari, men egin behar diote; horren arabera, aipatutako dekretuarekin bat etorritik behin betiko kalifikazioa jasotzen duten etxebizitzek eta lokalek betiko eutsiko diote kalifikazio horri eta, beraz, babes ofizialeko izaerari. Era berean, 315/2002 Dekretu hori indarrean sartu ostean behin betiko kalifikatutako babes ofizialeko etxebizitzei ezingo zaie gero kalifikazioa kendu, salbu eta ostatu berria emateko etxebizitzen kasuan, ostatu berria jaso duten pertsonak eskatuta kalifikazioa kendu ahalko baitaie, behin betiko kalifikazioaren egunetik zenbatuta 20 urte igarotzen direnean. Ondoren, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak lehen aipatutako guztia berretsi zuen.

- *Plazo de duración del régimen de protección de las viviendas*

Las viviendas con calificación provisional de vivienda de protección oficial anterior al 31 de diciembre de 2002 están sujetas al Decreto 306/2000, de 26 de diciembre, sobre Régimen de Viviendas de Protección Oficial y Medidas Financieras en materia de Vivienda y Suelo, por el que el plazo de duración del régimen de protección concluirá transcurridos 20 años, a contar desde la fecha del otorgamiento de la correspondiente calificación definitiva. No obstante, el régimen de protección oficial se prorrogará, en su caso, hasta la total amortización de las medidas financieras concedidas.

Por otra parte, las viviendas con calificación provisional de vivienda de protección oficial posterior al 31 de diciembre de 2002 están sujetas al Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre Régimen de Viviendas de Protección Oficial y Medidas Financieras en materia de Vivienda y Suelo, por el que las viviendas y locales que sean objeto de calificación definitiva con arreglo a lo previsto en el citado Decreto, mantendrán permanentemente la misma y, por lo tanto, su naturaleza de protección oficial. Asimismo, las viviendas de protección oficial calificadas definitivamente tras la entrada en vigor del citado Decreto 315/2002, no podrán ser posteriormente descalificadas, salvo en el supuesto de viviendas destinadas a realojos, que podrán ser descalificadas a petición de las personas realojadas, una vez transcurridos 20 años a contar desde la fecha de su calificación definitiva. Con posterioridad el Decreto 39/2008 de 4 de marzo, ratifica todo lo mencionado anteriormente.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. SOZIETATEARI APLIKATU BEHARREKO FINANTZA-INFORMAZIOAREN ARAU-ESPARRUA

Sozietateari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua agiri hauetan ezarritakoa da:

2. BASES DE PRESENTACIÓN DE LAS CUENTAS ANUALES

2.1. MARCO NORMATIVO DE INFORMACIÓN FINANCIERA APLICABLE A LA SOCIEDAD

El marco normativo de información financiera que resulta de aplicación a la Sociedad es el establecido en:

- | | |
|---|--|
| <p>a) Merkataritza Kodea, kapital-sozietateei buruzko legea eta gainerako merkataritza-legeria.</p> <p>b) 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra eta haren ondorengo aldaketak, 2021/1 eta 602/2016 Errege Dekretuek onetsitakoa barne, baita alderdi batzuei buruzko arauak, martxoaren 25eko EHA/733/2010 Aginduen arabera, ere, enpresa publikoentzako kontabilitateari lotutako alderdiak jorratzen baititu.</p> <p>c) 1990eko Kontabilitate Plan Orokorren Egokitzapen Sektorialeko Arauak, higiezin enpresetarako eta eraikuntzakoetarako, arestian zerrendatutako araudiaren aurka egiten ez duten alderdi guztietan.</p> | <p>a) El Código de Comercio, Ley de Sociedades de Capital y la restante legislación mercantil.</p> <p>b) El Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007 y sus modificaciones posteriores incluyendo las aprobadas por el Real Decreto 1/2021 y el Real Decreto 602/2016, así como las normas sobre determinados aspectos de acuerdo con la Orden EHA/733/2010 de 25 de marzo, que considera aspectos contables para empresas públicas.</p> <p>c) Las Normas de Adaptación Sectorial del Plan General de Contabilidad de 1990 a las empresas inmobiliarias y constructoras en todo aquello que no se oponga a la normativa relacionada anteriormente.</p> |
|---|--|

2.2. IRUDI FIDELA

2023ko ekitaldiko urteko kontuak sozietatearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira eta aplikagarria den finantza-informazioaren arau-esparruaren eta, batez ere, hor jasotzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera aurkezten dira; beraz, sozietateak ekitaldiaren amaieran zituen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela erakusten dute, baita ekitaldian egondako eragiketen emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere.

Urteko kontu hauek sozietatearen administratzaileek egin dituzte eta akziodunen batzar nagusi arruntari aurkeztuko zaizkio, onets ditzan. Dena den, sozietatearen administratzaileek ez dute uste berrespen-prozesuan aldaketa garrantzitsuak egongo direnik. Bestalde, 2022ko ekitaldiko urteko kontuak Sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen 2023ko ekainaren 27ko ohiko bilkuran.

Urteko kontu hauek eurotan aurkezten dira, sozietatearen moneta funtzionala eta aurkezpenekoa baita.

2.3. KONTABILITATE-PRINTZPIOAK

2023ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparruari jarraitu zaio eta, bereziki, 4. oharrean zehaztutako erregistro- eta balioespen-arauei jarraitu zaie.

2.2. IMAGEN FIEL

Las cuentas anuales del ejercicio 2023 han sido preparadas a partir de los registros contables de la Sociedad y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad a la fecha de cierre del ejercicio, así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo habidos durante el ejercicio.

Estas cuentas anuales que han sido formuladas por los Administradores de la Sociedad se someterán a la aprobación de la Junta General Ordinaria de Accionistas. No obstante, los Administradores de la Sociedad no esperan que se produzcan modificaciones significativas en el proceso de ratificación. Por su parte, las cuentas anuales del ejercicio 2022 fueron aprobadas por la Junta General de Accionistas de la Sociedad en su reunión ordinaria de 27 de junio de 2023.

Las presentes cuentas anuales se presentan en euros, que es la moneda funcional y de presentación de la Sociedad.

2.3. PRINCIPIOS CONTABLES

Para la elaboración de las cuentas anuales del ejercicio 2023 se ha seguido el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, especialmente, se han seguido las normas de

Sozietateen administratzaileek nahitaez aplikatu behar diren eta urteko kontuotan eragin garrantzitsua duten kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak kontuan hartuz egin dituzte urteko kontuak. Ez dago nahitaezkoa den eta urteko kontu hauek egiteko aplikatu gabe utzi den kontabilitate-printzipiorik. Era berean, ez da nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik aplikatu.

registro y valoración descritas en la Nota 4. Los Administradores de la Sociedad han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que, siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse en la elaboración de estas cuentas anuales. Asimismo, no se han aplicado principios contables no obligatorios.

2.4. ZIURGABETASUNA BALIOESTEKO ETA ZENBATESTEN FUNTSEZKO ALDERDIAK

a) Kontabilitate-zenbatespen garrantzitsuak eta hipotesiak

2023ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak prestatzeko, sozietatearen administratzaileek egindako iritziak eta zenbatespenak erabili dira, horietan erregistratu diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko. Zenbatespen horiek esperientzia historikoan eta egungo inguruabarretan arrazoizkotzat jo diren beste faktore batzuetan oinarrituta daude. Aipatutako zenbatespenak 2023ko ekitaldiaren amaieran aztertutako egitateei buruz eskuragarri dagoen informazio onenaren arabera egin diren arren, baliteke etorkizunean gertatzen diren jazoerek datozen ekitaldietan aldaraztea; hori, hala badagokio, gerora egingo litzateke.

Hauek dira etorkizunaren inguruko funtsezko suposizioak eta ekitaldiaren amaierako ziurgabetasunaren zenbatespenari buruzko beste datu aipagarri batzuk, datorren ekitaldian aktiboen eta pasiboen balioan aldaketa garrantzitsuak eragin ahal dituen arrisku nabarmena dakartenak:

- Aktibo jakin batzuen litezkeen narriaduraregatiako galeren bilakaera: sozietateak urtero egiaztatzen du horren zantzuak dituzten aktiboetan narriadurarik badagoen eta, ondorioz, haien balio berreskuragarria zenbatetsi behar du (4.4, 4.6, 4.7, 6, 7, 8, 10 eta 11. oharak).
- Sozietateak bere ibilgetu ukiezina, ibilgetu materiala eta higiezin

2.4. ASPECTOS CRÍTICOS DE LA VALORACIÓN Y ESTIMACIÓN DE LA INCERTIDUMBRE

a) Estimaciones contables relevantes e hipótesis

En la preparación de las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2023 se han utilizado juicios y estimaciones realizadas por los Administradores de la Sociedad, para cuantificar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Dichas estimaciones están basadas en la experiencia histórica y en otros factores que se consideran razonables bajo las circunstancias actuales. Si bien las citadas estimaciones se han realizado en función de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2023 sobre los hechos analizados, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a su modificación en los próximos ejercicios, lo que se realizaría, en su caso, de forma prospectiva.

Los supuestos clave acerca del futuro, así como otros datos relevantes sobre la estimación de la incertidumbre en la fecha de cierre del ejercicio, que llevan asociados un riesgo importante que pueda suponer cambios significativos en el valor de los activos y pasivos en el ejercicio siguiente, son los siguientes:

- La evolución de posibles pérdidas por deterioro de determinados activos: La Sociedad comprueba anualmente si existe deterioro en aquellos activos que presentan indicios de ello, debiendo en consecuencia estimar su valor recuperable (Notas 4.4, 4.6, 4.7, 6, 7, 8, 10 y 11).
- La Sociedad amortiza su inmovilizado intangible, el inmovilizado material y las

inbertsioak bizitza baliagarriko urte zenbatetsien arabera amortizatzen ditu. Ondorioz, funtzionamendu, erabilera eta gozamenagatik eskuarki izaten duten balio-galera zenbatetsi behar du, eragin ahal dien zaharkitze tekniko edo komertziala ere kontuan hartuz (4.1, 4.2 eta 4.3 oharrak).

- Erakundearen jardueraren berezko hornidura eta kontingentzia jakin batzuk gertatzeko probabilitatea eta zenbatekoa (4.10 eta 16. oharrak).
- Programa-kontratu bakoitzeko sustapenen emaitzaren kalkulu orokorra ("isotartea" delakoa), programa-kontratu bakoitzeko lehen sustapena merkaturatzen hasten denean zenbatesten baita eta sustapenen arteko diru-laguntza egozteko oinarria baita, egiteko erabilitako zenbatespenak eta hipotesiak (4.11 oharra).

inversiones inmobiliarias en función de los años estimados de vida útil, debiendo en consecuencia estimar la depreciación que normalmente sufren por su funcionamiento, uso y disfrute, sin perjuicio de considerar también la obsolescencia técnica o comercial que pudiera afectarlos (Notas 4.1, 4.2 y 4.3).

- La probabilidad de ocurrencia y el importe de determinadas provisiones y contingencias propias de la actividad de la Entidad (Notas 4.10 y 15).
- Las estimaciones e hipótesis utilizadas para el cálculo global del resultado de las promociones de cada Contrato-Programa, (denominado, "Isomargen") que se estima con el inicio de la comercialización de la primera promoción de cada Contrato-Programa, y a partir del cual se produce la imputación de la subvención entre promociones (Nota 4.11).

b) Aldaketak kontabilitate-zenbatespenetan

2023ko ekitaldian ez da egungo ekitaldiari eragiten dion edo aurreikuspenei jarraiki etorkizuneko ekitaldiei eragin ahal dion aldaketa garrantzitsurik egon kontabilitate-zenbatespenetan.

b) Cambios en estimaciones contables

En el ejercicio 2023 no se han producido cambios en estimaciones contables que sean significativos y que afecten al ejercicio actual o que se espere que puedan afectar a ejercicios futuros.

2.5. INFORMAZIOAREN KONPARAZIOA

Urteko kontuek, konparatzeko asmoz, 2023ko ekitaldiko balantzeko, galdu-irabazien kontuko, ondare garbiaren aldaketen egoerako eta eskudiru-fluxuen egoerako partida bakoitzarekin batera, aurreko ekitaldikoak ere biltzen dituzte. Era berean, 2023ko ekitaldiari buruzko memoria honetan jasotako informazioa 2022ko ekitaldiko informazioarekin batera aurkezten da, erkatzeko helburuarekin.

2.5. COMPARACIÓN DE LA INFORMACIÓN

Las cuentas anuales presentan a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo, además de las cifras del ejercicio 2023, las correspondientes al ejercicio anterior. Asimismo, la información contenida en esta memoria referida al ejercicio 2023 se presenta, a efectos comparativos con la información del ejercicio 2022.

2.6. ALDAKETAK KONTABILITATE-IRIZPIDEETAN

2023ko ekitaldian ez da kontabilitate-irizpide esanguratsurik aldatu aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

2.6. CAMBIOS EN CRITERIOS CONTABLES

Durante el ejercicio 2023 no se han producido cambios de criterios contables significativos respecto a los criterios aplicados en el ejercicio anterior.

2.7. AKATSEN ZUZENKETA

Urteko kontu erantsiak egitean ez da aurkitu aurreko ekitaldiko urteko kontuetan sartutako zenbatekoak berriro adierazi behar izatea ekarri duen akats garrantzitsurik.

2.7. CORRECCIÓN DE ERRORES

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la re-expresión de los importes incluidos en las cuentas anuales del ejercicio anterior.

2.8. GARRANTZI ERLATIBOA

Memoria honetan finantza-egoeren edo beste gai batzuen partidei buruz banakatu beharreko informazioa zehazterakoan, sozietateak, Kontabilitate Plan Orokorren kontzeptu-esparruarekin bat etorritik, 2023ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez duen garrantzi erlatiboa aintzat hartu du.

2.8. IMPORTANCIA RELATIVA

Al determinar la información a desglosar en la presente memoria sobre las diferentes partidas de los estados financieros u otros asuntos, la Sociedad, de acuerdo con el Marco Conceptual del Plan General de Contabilidad, ha tenido en cuenta la importancia relativa en relación con las cuentas anuales del ejercicio 2023.

3. EMAITZEN BANAKETA

Honako hau da 2023ko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena (sozietatearen administratzaileek proposatu dute eta akziodunen batzar nagusiari aurkeztuko zaio onetsi dezan) eta 2022ko ekitaldiko emaitzaren banaketa (akziodunen batzar nagusiak 2023ko ekainaren 27an onetsi zuen):

3. DISTRIBUCIÓN DE RESULTADOS

La propuesta de distribución del resultado del ejercicio 2023 formulada por los Administradores de la Sociedad y que se someterá a la aprobación de la Junta General de Accionistas, así como la del resultado del ejercicio 2022, aprobado por la Junta General de Accionistas el 27 de junio de 2023, son las siguientes:

	Euroak / Euros	
	2023	2022
BANAKETA-OINARRIA/ BASE DE REPARTO		
Ekitaldiko mozkinak / Beneficios del ejercicio	3.692.515	960.724
Borondatezko erreserbak / Reservas voluntarias	-	-
Guztira / Total	3.692.515	960.724
BANAKETA / DISTRIBUCIÓN		
Legezko erreserba / A reserva legal	369.252	96.072
Beste erreserba batzuk / Otras reservas		
Kapitalizazio-erreserbak / Reservas de capitalización	3.323.263	864.652
Borondatezko erreserbak / Reservas voluntarias	-	-
	3.692.515	960.724

4. ERREGISTRO ETA BALIOSPEN- ARAUAK

Jarraian, 2023ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko aplikatu diren erregistro- eta balioespen-arau garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

4.1. IBILGETU UKIEZINA

Aktibo ez-monetario identifikagarriak dira, baina ez dute itxura fisikorik; negozio juridiko baten ondorioz sortzen direnak edo barnean garatu direnak. Kontabilitatean, soilik aitortzen dira modu fidagarrian zenbatetsi daitekeen kostua dutenak eta sozietateak etorkizunean onura edo etekin ekonomikoak lortzea aurreikusten dituenak.

Oro har, ibilgetu ukiezinak, hasieran, eskurapen-prezioan edo ekoizpen-kostuan balioesten da. Ondoren, kostu minoratuko balioan balioesten da, dagokion amortizazio metatua (bizitza baliagarriaren arabera kalkulatua) eta, hala badagokio, aitortutako narriaduragatiko balioespen-zuzenketa zenbateko metatua kontuan hartuz.

Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa haien bizitza baliagarri zenbatetsiaren arabera egiten da, eta ibilgetu ororen bizitza erabilgarria zehaztu daiteke fidagarritasunez. Zenbateko amortizagarritzat hartzen da eskuratze-kostua ken hondar-balioa, aplikatzekoa bada.

Sozietateak ekitaldi bakoitzaren bukaeran berrikusten ditu ibilgetu ukiezinaren hondar-balioa, bizitza baliagarria eta amortizazio-metodoa. Hasiera batean ezarritako irizpideetan egon daitezkeen aldaketak zenbatespen-aldaketa gisa aitortzen dira.

Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak 4.4 oharrean deskribatu dira.

Aplikazio Informatikokoak

Partida honetan programa informatikoen jabe izateagatik edo horiek erabiltzeko eskubideagatik ordaindutako zenbatekoak erregistratzen dira, bai

4. NORMAS DE REGISTRO Y VALORACIÓN

A continuación, se resumen las normas de registro y valoración más significativas que se han aplicado en la preparación de las cuentas anuales del ejercicio 2023:

4.1. INMOVILIZADO INTANGIBLE

Son activos no monetarios identificables, aunque sin apariencia física, que surgen como consecuencia de un negocio jurídico o que han sido desarrollados internamente. Sólo se reconocen contablemente aquellos cuyo coste puede estimarse de manera fiable y de los que la Sociedad estima probable obtener en el futuro beneficios o rendimientos económicos.

Como norma general, el inmovilizado intangible se valora inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción. Posteriormente, se valora a su valor de coste minorado por la correspondiente amortización acumulada, calculada en función de su vida útil y, en su caso, por el importe acumulado de las correcciones valorativas por deterioro reconocidas.

La amortización de los inmovilizados intangibles se realiza en función de su vida útil estimada, no existiendo inmovilizado cuya vida útil no pueda ser determinada con fiabilidad. Se entiende por importe amortizable el coste de adquisición menos, en caso de ser aplicable, su valor residual.

La Sociedad revisa el valor residual, la vida útil y el método de amortización de los inmovilizados intangibles al cierre de cada ejercicio. Las eventuales modificaciones en los criterios inicialmente establecidos se reconocen como un cambio de estimación.

Los criterios para el reconocimiento de las pérdidas por deterioro de estos activos, y, en su caso, de las recuperaciones de las pérdidas por deterioro registradas en ejercicios anteriores, se describen en la Nota 4.4.

Aplicaciones informáticas

Se registran en esta partida los importes satisfechos por la propiedad o por el derecho al uso de programas informáticos, tanto de los adquiridos

hirugarrenei erositakoei bai enpresak berak egindakoei dagokienez, web orriak garatzeko gastuak barne, baldin eta zenbait ekitalditan erabiltzea aurreikusten bada. Halaber, kasuan kasuko amortizazio metatuaren garbiak aurkezten dira; amortizazio hori metodo linealaren arabera kalkulatu da, bost urteko aldirako, eta, hala badagokio, aitortutako narriaduragatik balioespen-zuzenketak aintzat hartu dira.

Mantentze-gastuak, berrikuspen orokorrekoak edo aplikazio horiek aldatzearen edo eguneratzearen ondorioz errepikatzen direnak gertatzen diren ekitaldiko gastu gisa erregistratzen dira zuzenean.

4.2. IBILGETU MATERIALA

Sozietateak ondasun edo zerbitzuak ekoitzi edo hornitzeko erabiltzeko edo helburu administratiboetarako dauzkan eta aurreikuspenei jarraiki ekitaldi bat baino gehiagotan erabiliko diren aktibo ukigarriak dira.

Ibilgetu materialean barne hartzen diren ondasunak eskurapen-kostuan (hala badagokio, zenbait lege-xedapenez eguneratuta) edo ekoizpen-kostuan daude erregistratuta, amortizazio metatua eta balio-narriaduragatik edozein galera kenduta, horrelakorik egonez gero.

Erakundeak eraikitako ibilgetu materialaren kostua zehazteko, ibilgetu eresia balitz erabiliko liratekeen printzipio bereberri jarraitzen zaie. Ekoizpen-kostuaren kapitalizazioa egiteko, galera-irabazien kontuko "Enpresak bere aktiborako egindako lanak" epigrafea aintzat hartu da.

Ibilgetu materialeko ondasunak berritzeko, handitzeko edo hobetzeko kostuak aktiboari gehitzen zaizkio, ondasunaren balio handiago gisa, baldin eta haien gaitasuna, produktibitatea areagotu edo bizitza baliagarria luzatzen badute, eta, ondorioz, elementu ordeztuen edo berrituen kontabilitatetik kentzen dira.

Erabiltzeko moduan egoteko urte bat baino gehiago behar duten ibilgetu materialak eskuratzeko kostuak elementua funtzionatzeko moduan jarri baino lehen sortutako finantza-gastuak barne hartzen ditu. Aitzitik, data horren ondoren edo gainerako ibilgetuko elementuen eskurapena finantzatzeko sortutako finantza-interesek ez dute eskurapen-kostua handitzen eta sortzen diren ekitaldiko galera-irabazien kontuan

a terceros como de los elaborados por la propia empresa, incluidos los gastos de desarrollo de las páginas web, siempre que esté prevista su utilización durante varios ejercicios, y se presentan netos de su correspondiente amortización acumulada, calculada según el método lineal sobre un período de cinco años y, en su caso, de las correcciones valorativas por deterioro reconocidas.

Los gastos de mantenimiento, de revisión global de los sistemas o los recurrentes como consecuencia de la modificación o actualización de estas aplicaciones, se registran directamente como gastos del ejercicio en que se incurrir.

4.2. INMOVILIZADO MATERIAL

Son los activos tangibles que posee la Sociedad para su uso en la producción o suministro de bienes y servicios o para propósitos administrativos y que se espera utilizar durante más de un ejercicio.

Los bienes comprendidos en el inmovilizado material figuran registrados a su coste de adquisición (actualizado en su caso con diversas disposiciones legales) o coste de producción, menos la amortización acumulada y cualquier pérdida por deterioro de valor, si la hubiera.

El coste del inmovilizado material construido por la Entidad se determina siguiendo los mismos principios que si fuera un inmovilizado adquirido. La capitalización del coste de producción se realiza con abono al epígrafe "Trabajos realizados por la empresa para su activo" de la cuenta de pérdidas y ganancias.

Los costes de renovación, ampliación o mejora de los bienes de inmovilizado material son incorporados al activo como mayor valor del bien en la medida en que supongan un aumento de su capacidad, productividad, o alargamiento de su vida útil, con el consiguiente retiro contable de los elementos sustituidos o renovados.

El coste de adquisición de los inmovilizados materiales que necesitan un periodo superior a un año para estar en condiciones de uso incluye los gastos financieros devengados antes de la puesta en condiciones de funcionamiento del elemento. Por el contrario, los intereses financieros devengados con posterioridad a dicha fecha o para financiar la adquisición del resto de elementos de inmovilizado, no incrementan el coste de

erregistratzen dira. 2023ko eta 2022ko ekitaldietan ez da kontzeptu horrengatik zenbatekorik aktibatu.

Alokututako lokalak egokitzeko kostuak instalazio gisa sailkatzen dira eta sistematikoki amortizatzen dira metodo linealaren arabera, 10 urteko aldian, errentamendu-kontratuaren iraupena inoiz gainditu gabe.

Aktiboen erabilera hobetzen ez duten eta horien bizitza baliagarria luzatzen ez duten mantentze-, kontserbazio- eta konponketa-gastuak emaitzei egozten zaizkio, sortzapenaren printzipioari jarraiki, gertatzen diren ekitaldiko kostu gisa.

Sozietateak metodo linealari jarraitzen dio ibilgetu materiala amortizatzeke, eskurapen-kostua (hala badagokio, hondar-balioa kenduta) bizitza baliagarri zenbatetsiko urteetan banatuz; horiek, gutxi gorabehera, ehuneko hauek sortzen dituzte:

adquisición y se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se devengan. Durante los ejercicios 2023 y 2022 no se han activado importes por este concepto.

Los costes incurridos en el acondicionamiento de locales arrendados se clasifican como instalaciones, amortizándose sistemáticamente mediante el método lineal durante un periodo de 10 años, sin superar en ningún caso la duración del contrato de arrendamiento.

Los gastos de mantenimiento, conservación y reparación que no mejoran la utilización ni prolongan la vida útil de los activos, se imputan a resultados, siguiendo el principio del devengo, como coste del ejercicio en que se incurren.

La Sociedad amortiza su inmovilizado material siguiendo el método lineal, distribuyendo su coste de adquisición menos, en su caso, su valor residual entre los años de vida útil estimada que se muestran a continuación:

	Bizitza baliagarriko urte zenbatetsiak / Años de vida útil estimada
Eraikuntzak / Construcciones	33,3
Erremintak / Utillaje	10
Beste instalazio batzuk / Otras instalaciones	10
Altzariak / Mobiliario	10
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak / Equipos para procesos de información	5
Bestelako ibilgetua / Otro inmovilizado	5

Kontuan hartu da eraikinak eta beste eraikuntza batzuk kokatzen diren lursailek bizitza baliagarri zehaztugabea dutela eta, hortaz, ezin direla amortizatzen.

Sozietateak ekitaldi bakoitzaren bukaeran berrikusten ditu ibilgetu materialaren hondar-balioa, bizitza baliagarria eta amortizazio-metodoa. Hasiera batean ezarritako irizpideetan dauden aldaketak, hala badagokio, zenbatespen-aldaketa gisa aitortzen dira.

Se ha considerado que los terrenos sobre los que se asientan los edificios y otras construcciones tienen una vida útil indefinida y que, por tanto, no son objeto de amortización.

La Sociedad revisa el valor residual, la vida útil y el método de amortización del inmovilizado material al cierre de cada ejercicio. Las modificaciones en los criterios inicialmente establecidos se reconocen, en su caso, como un cambio de estimación.

Aktibo bat besterentzearen edo erretiratzearen ondoriozko mozkina edo galera kalkulatzeko, hala badagokio, salmenta-prezioaren eta aktiboaren kontabilitate-zenbatekoaren arteko diferentzia ateratzen da, emaitzen kontuan aitoruz.

Sozietatearen administratzaileen ustez, aktiboen kontabilitate-balioak ez du haien balio berreskuragarria gainditzen; 4.4 oharrean azaldutakoan oinarrituta kalkulatu da azken hori.

Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak aitorzeko irizpideak 4.4 oharrean deskribatu dira.

4.3. HIGIEZINEN INBERTSIOAK

Higiezin inbertsioak alokairu babestuko araubidean ustiatzeko mantentzen diren eraikinei eta bestelako eraikuntzei dagozkie.

Aktibo horiek aurreko 4.2 oharrean, ibilgetu materialari buruzkoan, adierazitako irizpideekin bat etorritik balioetsi eta amortizatzen dira.

Aktibo horiek alokatzeagatiko diru-sarrerak 4.5 oharrean, alokairuei buruzkoan, azaldutakoari jarraiki aitorzen dira.

Sozietateak metodo linealari jarraiki amortizatzen ditu errentamendurako higiezinak, bizitza baliagarriko urteen arabera (sozietateak era orokor batean bere parte diren multzorako 33,3 urte direla zenbatetsi du).

Higiezin baten hasierako sailkapena sozietatean betetzen duen funtzioa aldatzen duen guztietan aldatzen da. Higiezin salmenta sozietatearen jarduera arruntaren zati bat denez, higiezinak higiezin inbertsioetara lekualdatzen dira errentamendu eraginkorraren xede direnean.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan, sozietateak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko abenduaren 12ko aginduak, babes ofizialeko etxebizitzak erosteko aukera ematen duen errentamenduari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik, agindu horren 3.2 artikuluan xedatutakoaren babesean, behin betiko kalifikazioaren aldaketa lortu du, horri higiezin jakin batzuen azalera-jabetzaren lagapenerako aukera ematen duen errentamendua gehitzeko asmoz, errentamendu eraginkorrerako

El beneficio o pérdida resultante de la enajenación o el retiro de un activo se calcula, en su caso, como la diferencia entre el precio de la venta y el importe en libros del activo, y se reconoce en la cuenta de resultados.

Los Administradores de la Sociedad consideran que el valor contable de los activos no supera el valor recuperable de los mismos, calculando éste en base a lo explicado en la Nota 4.4.

Los criterios para el reconocimiento de las pérdidas por deterioro de estos activos y, en su caso, de las recuperaciones de las pérdidas por deterioro registradas en ejercicios anteriores, se describen en la Nota 4.4.

4.3. INVERSIONES INMOBILIARIAS

Las inversiones inmobiliarias corresponden a los edificios y otras construcciones que se mantienen para explotarlos en régimen de alquiler protegido.

Estos activos se valoran y amortizan de acuerdo con los criterios indicados en la Nota 4.2 anterior, relativa al inmovilizado material.

Los ingresos por arrendamiento de estos activos se reconocen siguiendo lo expuesto en la Nota 4.5, relativa a arrendamientos.

La Sociedad amortiza los Inmuebles para arrendamiento siguiendo el método lineal, en función de los años de vida útil que la Sociedad ha estimado globalmente para el conjunto de sus componentes en 33,3 años.

La clasificación inicial de un inmueble se modifica siempre que haya cambiado la función que desempeña en la Sociedad. Dado que la venta de inmuebles forma parte de la actividad ordinaria de la Sociedad, los inmuebles se traspasan a inversiones inmobiliarias cuando sean objeto de arrendamiento operativo.

Durante los ejercicios 2023 y 2022 la Sociedad, de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 12 de diciembre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco sobre arrendamiento con opción de compra de viviendas de protección oficial, al amparo de lo dispuesto en el artículo 3.2 de la misma, ha obtenido la modificación de calificación definitiva, al objeto de incorporar a la misma el arrendamiento con opción de cesión de la propiedad superficiaria de determinados inmuebles con el objetivo de

erabiltzeko helburuarekin. Sozietateak izakin gisa sailkatzen ditu haren jarduera arruntari atxikitako higiezinak. Hala ere, arestian aipatutakoaren arabera errentamendu eraginkorrerako erabiltzen diren higiezinak, baldin eta dagokion errentamendu-kontratua sinatu bada eta fidantzen eta azalera-eskubidea lagatzeko aukeren zenbatekoa jaso bada, balantzeko higiezinaren inbertsioen epigrafera mugitzen dira.

4.4. IBILGETU UKIEZINAREN, MATERIALAREN ETA HIGIEZINEN INBERTSIOEN BALIO-NARRIADURA

Onartzen da eragiketa komertzialengatik eta ez-komertzialengatik kredituen eta zordunketen kontabilitate-balioa haien arrazoizko baliora hurbiltzen dela.

4.6.4. Ondare propioko tresnak

Sozietateak jaulkitako kapital-tresna guztiak egoera-balantze erantsiko ondare garbiko "Funts propioak" epigrafeko "Kapitala" partidan daude sailkatuta. Ez dago ondare propioko bestelako tresnarik.

Tresna horiek zuzeneko jaulkipen-kostuetatik jasotako zenbateko garbian erregistratzen dira ondare garbian.

Sozietateak bere ondare-tresna propioak eskuratu edo saltzen dituzenean, ordaindutako edo jasotako zenbatekoa ondare garbiko kontuetan zuzenean erregistratzen da eta ez da zenbatekorik aitortzen transakzio horrengatik emaitzen kontuan.

4.6.3. Valor razonable

El valor razonable es el precio que se recibiría por la venta de un activo o se pagaría para transferir o cancelar un pasivo mediante una transacción ordenada entre participantes en el mercado en la fecha de valoración. El valor razonable se determina sin practicar ninguna deducción por los costes de transacción en que pudiera incurrirse por causa de enajenación o disposición por otros medios. No tiene en ningún caso el carácter de valor razonable el que sea resultado de una transacción forzada, urgente o como consecuencia de una situación de liquidación involuntaria.

Con carácter general, en la valoración de instrumentos financieros valorados a valor razonable, la Sociedad calcula éste por referencia a un valor fiable de mercado, constituyendo el precio cotizado en un mercado activo la mejor referencia de dicho valor razonable. Para aquellos instrumentos respecto de los cuales no exista un mercado activo, el valor razonable se obtiene, en su caso, mediante la aplicación de modelos y técnicas de valoración.

Se asume que el valor en libros de los créditos y débitos por operaciones comerciales y no comerciales se aproxima a su valor razonable.

4.6.4. Instrumentos de patrimonio propio

Todos los instrumentos de capital emitidos por la Sociedad figuran clasificados en la partida "Capital" del epígrafe "Fondos Propios" del Patrimonio Neto del balance de situación adjunto. No existen otro tipo de instrumentos de patrimonio propio.

Dichos instrumentos se registran en el patrimonio neto por el importe recibido neto de los costes directos de emisión.

Cuando la Sociedad adquiere o vende sus propios instrumentos de patrimonio, el importe pagado o recibido se registra directamente en cuentas de patrimonio neto, no reconociéndose importe alguno en la cuenta de resultados por dichas transacciones.

4.6.5. Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak diren aktibo likidoak

Egoera-balantze erantsiko epigrafe honek kuxako eskudirua, kreditu-erakundeetako ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk, hiru hilabeteko edo gutxiagoko jatorrizko epemuga dutenak, barne hartzen ditu. Bankuko zorpekoak egoera-balantze erantsiko "Pasibo arrunta" ataleko "Kreditu-erakundeekiko zorrak" epigrafean sailkatzen dira.

4.6.6. Finantza-tresna deribatuak eta kontabilitate-estaldurak

Erakunde honen politika finantza-tresna deribatutik ez erabiltzea eta inolako estaldura-eragiketak ez egotea da.

4.6.5. Efectivo y activos líquidos equivalentes al efectivo

Este epígrafe del balance de situación adjunto incluye el efectivo en caja, los depósitos a la vista en entidades de crédito y otras inversiones a corto plazo de gran liquidez con un vencimiento original inferior o igual a tres meses. Los descubiertos bancarios se clasifican en el epígrafe "Deudas con entidades de crédito" del "Pasivo corriente" del balance de situación adjunto.

4.6.6. Instrumentos financieros derivados y coberturas contables

La política de la Entidad es no utilizar instrumentos financieros derivados ni realizar ningún tipo de operación de cobertura.

4.7. IZAKINAK

Balantze erantsiaren epigrafe honek sozietateak bere negozioaren ibilbide arruntan saltzeko dauzkan edo helburu horrekin eraikitze edo garatzeko prozesuan dituen aktiboak jasotzen ditu.

Hauek dira izakinak balioesteko jarraitutako irizpideak:

- Eskuratutako eraikinak eta eroslehetasunak eskurapen-prezioan balioesten dira.
- Lursailak eta orubeak eskurapen-prezioan balioesten dira. Hori, bakarrik lursail eta orubeetan jarduketak garatzen ari direnean, handitu egiten da sustapena edo salmenta abian jarri arte haiei atxikitako beharrezko gastu guztietan; funtsean, urbanizazio-kostuei dagozkie, egonez gero, baita erosketarekin zerikusia duten gastuei (eskualdaketen gaineko zergak, erregistro-gastuak, etab.) eta egindako finantza-gastuei dagozkie. Hau da, lursailak edo orubeak sozietatearen ondarean sartzea eta horiek egokitzeko obrak hastea aldi berean gertatzen ez badira, epaitzen da aldi horretan ez dela bidezkoa finantza-gastuen aktibazioa. Era berean, aktibazioa gelditu egiten da eraikuntzan edo urbanizazioan etenaldirik egonez gero. Beraz, sozietateak ez du finantza-gasturik aktibatzen lurzorua hiritintza-garapenerako beharrezkoak

4.7. EXISTENCIAS

Este epígrafe del balance adjunto recoge los activos que la Sociedad mantiene para su venta en el curso ordinario de su negocio o tiene en proceso de construcción o desarrollo con dicha finalidad.

Los criterios seguidos para la valoración de las existencias son las siguientes:

- Los edificios adquiridos y tanteos se valoran a su precio de adquisición.
- Los terrenos y solares se valoran a su precio de adquisición, incrementado en todos aquellos gastos necesarios afectos a los mismos hasta la puesta en marcha de la promoción o venta, que corresponden, básicamente, a los costes de urbanización si los hubiese, así como otros gastos relacionados con la compra (impuestos de transmisiones, gastos de registro, etc.) y los gastos financieros incurridos, sólo en el caso de que se estén desarrollando actuaciones sobre los mismos. Esto es, si no coinciden en el tiempo la incorporación de terrenos o solares al patrimonio de la Sociedad y el comienzo de las obras de adaptación de los mismos, se considera que durante dicho período no procede la activación de gastos financieros. Asimismo, cesa la activación en el caso de producirse una interrupción en la construcción y/o urbanización. Por tanto, la

diren hirigintza-jarduketak egiten ari diren aldian.

- Aribideko sustapenak zuzenean jasandako kostu guztiak gehituz balioesten dira, lursailak eta orubeak zein sustapenei jasanarazi ahal zaizkion beste gastu batzuk barne, hala nola eraikuntzari, gainbegiratzeari, koordinazioari eta eraikuntzaren kudeaketari dagozkionak, baita eraikuntza-aldian saltzeko moduan dauden unera arte egindako finantza-gastuak ere.
- Eraikitako eraikinak balioesteko, zuzenean jasandako kostu guztiak eta sustapenari jasanarazi ahal zaizkion beste gastu batzuk gehitzen dira. "Aribideko sustapenak" ataletik "Eraikitako eraikinak" atalera mugitzen da ekitaldian eraikitzen bukatu diren higiezinaren sustapenei dagokien kostua.
- Hala ere, balioespen horiek, hala badagokio, beherantz zuzentzen dira, egikaritze-balio garbiraino, egokitzen diren merkaturatze-gastuak kendutakoan. Gutxienez ekitaldiaren amaieran, izakinen balio garbi bihurtgarria ebaluatzen da, egokiak diren balioespen-zuzenketak eginez eta galera-irabazien kontuan gastu bat aitortuz horiek balioespen handiegia jaso dutenean eskurapen-prezioari edo ekoizpen-kostuari dagokionez. Lehen narriaduragatiko galera hori eragin zuten inguruabarrak jadanik existitzen ez direnean edo inguruabar ekonomikoen aldaketa bat dela-eta balio garbi bihurtgarria hazi delako ebidentzia argia dagoenean, horren zenbatekoa lehengoratu egiten da eta diru-sarrera bat aitortzen da galera-irabazien kontuan. Balioespen-zuzenketaren lehengoratzearen muga izakinen balio garbi bihurtgarri berriaren eta kostuaren balio txikiena da. Izakinen balioaren zuzenketak eta lehengoratzeak "Aribideko sustapenetako eta eraikitako eraikinetako izakinen aldaketa" epigrafean edo, hala badagokio "Hornikuntzak - Narriadura"

Sociedad no activa gastos financieros en el período en el cuál se están realizando actuaciones urbanísticas necesarias para el desarrollo urbanístico del suelo.

- Las promociones en curso se valoran incorporando a las mismas la totalidad de los costes directamente soportados, incluidos los terrenos y solares, otros gastos repercutibles a las promociones como los correspondientes a la construcción, supervisión, coordinación y gestión de la construcción, así como los gastos financieros incurridos durante el período de construcción hasta el momento en que se encuentren en condiciones de ser vendidas.
- Los edificios construidos se valoran incorporando a los mismos la totalidad de los costes directamente soportados y otros gastos repercutibles a la promoción. Se transfiere de "Promociones en curso" a "Edificios construidos" el coste correspondiente a aquellas promociones inmobiliarias cuya construcción ha terminado en el ejercicio.
- No obstante, dichas valoraciones se corrigen, en su caso, a la baja, hasta su valor neto de realización, una vez deducidos los gastos de comercialización que correspondan. Al menos al final del ejercicio, se realiza una evaluación del valor neto realizable de las existencias efectuándose las oportunas correcciones valorativas, reconociendo un gasto en la cuenta de pérdidas y ganancias, cuando las mismas se encuentran sobrevaloradas respecto a su precio de adquisición o a su coste de producción. Cuando las circunstancias que previamente causaron dicha pérdida por deterioro hayan dejado de existir o cuando exista clara evidencia de incremento en el valor neto realizable debido a un cambio en las circunstancias económicas, se procede a revertir el importe de la misma reconociéndose un ingreso en la cuenta de pérdidas y ganancias. La reversión de la corrección valorativa tiene como límite el menor del coste y el nuevo valor neto realizable de las existencias. Las correcciones y las reversiones en el valor de las existencias se reconocen con abono a los epígrafes "Variación de existencias de promociones en curso y edificios construidos" o, en su

epigrafean ordainduta aitortzen dira, izakin-motaren arabera.

- Hornitzaileei etorkizuneko hornikuntzen kontura emandako aurrerakinak eman den zenbatekoan balioesten dira.

Arestian aipatutako irizpideen arabera, galera-irabazien kontuko "Aktiboari finantza-gastuak gehitzea" epigrafean erregistratzen diren finantzaketa-iturri espezifikoetatik eratorritako finantza-gastuak aktibatzen ditu sozietateak izakin-balio nagusi gisa.

2008ko urtarrilaren 1a baino lehen (data horretan jarri zen abian Kontabilitate Plan Orokor berria) eskuratutako lursailen eta orubeen balioespena, sozietateak baliokidetasun-aukerari heltzen dionez, haren prezioa neurri batean edo guztiz geroratu baitzen, etorkizunean eraikin bat edo hirigintza-aprobetxamenduak ematearen truke, eman beharreko eraikuntzen etorkizuneko kostuaren zenbatespen onenaren arabera egiten da, kasuan kasuko lursailaren merkatu-balioaren mugarekin. Aldi berean, eta ordain gisa, aurreko eragiketak egindako zorra agerian jartzen duen kontu hartzekodun bat erabiltzen da. Data horretatik aurrera eta bide horretan egiten diren eskurapen berrietarako, arrazoizko balioan balioesten dira, baina ez da aurreikusten eman beharreko eraikuntzen etorkizuneko kostuaren zenbatespen onenaz oso desberdinak izango direnik.

Erakundea, sustapenetarako aurreikusitako emaitzak kalkulatzeko, Sail Tekniko eta Finantzarioak onetsitako aurrekontuetan oinarritzen da eta hori egikaritzeko gobernu-laguntzak kontuan hartzen ditu (4.11 oharra); beraz, emaitza negatiboa bada, aurreikusitako litezkeen galerak erregistratzen dira. Bukaerako galeren edozein zenbatespenek, hasieran aurreikusitakoei gehitzen bazaizkie, halakorik egonez gero, badauka hornidura. Aipatutako galerak, hala badagokio, galera-irabazien kontuko "Merkataritza-eragiketengatiko horniduren galerak, narriadura eta aldaketa" epigrafearen kargura erregistratzen dira, balantzeko aktiboaren "Izakinak" epigrafean ordainduta.

Sozietatearen arrazoizko balioa independenteak diren beste pertsona batzuek egindako balioespenetan, tasatzaila eta/edo etorkizuneko kuxako fluxuen estimazioetan, espero ziren errentagarritasunak eta beste aldagai batzuk kontutan hartuta lortzen da; eta/edo Sozietatearen

caso, "Aprovisionamientos – Deterioro", según el tipo de existencias.

- Los anticipos a proveedores a cuenta de suministros futuros se valoran por el importe entregado.

De acuerdo con los criterios mencionados anteriormente, la Sociedad activa como mayor valor de existencias gastos financieros derivados de fuentes de financiación específicas que se registran en el epígrafe "Incorporación al activo de gastos financieros" de la cuenta de pérdidas y ganancias.

La valoración de los terrenos y solares adquiridos con anterioridad al 1 de enero de 2008 (fecha de transición al Nuevo Plan General Contable), y por acogerse la Sociedad a la opción de equivalencia, cuyo precio fue parcial o totalmente aplazado, a cambio de la entrega de una construcción o aprovechamientos urbanísticos a entregar en el futuro se realiza de acuerdo con la mejor estimación del coste futuro de las construcciones a entregar, con el límite del valor de mercado del correspondiente terreno. Simultáneamente, y como contrapartida, se utiliza una cuenta acreedora que pone de manifiesto la deuda contraída por la operación anterior. A partir de dicha fecha y para las nuevas adquisiciones por esta vía se valoran a valor razonable, si bien no se espera que difieran sustancialmente de la mejor estimación del coste futuro de las construcciones a entregar.

La Entidad calcula los resultados previstos para las promociones en base a los presupuestos aprobados por el Departamento Técnico y Financiero y considerando las ayudas gubernamentales para su ejecución (Nota 4.11), de modo que, en caso de que dicho resultado sea negativo, se registran las posibles pérdidas previstas. Cualquier estimación de pérdidas a terminación, en su caso, adicionales a las inicialmente previstas, es provisionada. Las citadas pérdidas se registran, en su caso, con cargo al epígrafe "Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales" de la cuenta de pérdidas y ganancias con abono al epígrafe "Existencias" del activo del balance.

El valor razonable de las existencias de la Sociedad se obtiene en función de valoraciones realizadas por terceros independientes, tasadores y/o en estimaciones sobre flujos de caja futuros, rentabilidades esperadas y otras variables, y/o en función de estimaciones realizadas por el

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak egindako estimazioen arabera, hauek urtetako esperientzian oinarrituak daudelarik; ezagutzera eraman den demandan; izakinak aurkitzean eta higiezinaren sektorearen ezagutzan.

Lursail eta orubeen arrazoizko balioa Sozietatearekin erlaziorik ez duten tasatzaile independenteek egindako balioztapenen arabera kalkulatu da. Balioztapen hauek, nagusiki hondar-metodo dinamikoaren erabiliz egin dira eta kasu batzuetan, konparazio-metodoa eta errenta-eguneratze metodoa erabiltzen dira, lursailari ematen zaion erabilpenaren eta gaur eguneko egoera urbanistikoaaren arabera. Hondar-metodo dinamikoak, lursailak baloratzeko gehienbat erabiltzen den metodoak, eraiki daitekeen lurzorua merkatu-balioa izan dezakeen prezioarekin bat etortzea posible egiten du; tasatzeko momentuan erdi mailako higiezin promotore batek ordainduko lukeena, erosteko eta hobeto aprobetxatu eta erabilpen gehiago emateko. Zentzu honetan, Entitatearen zuzendaritzak tasazioak eta erabilitako hipotesiak berrikusten ditu, eta lurren erabilpena eta utsiapena programa-kontratuetan aurreikusitako hirigintza promozio edo ziurrenik izan dezakeen erabilpena doitzen du. Behar denean, berrikuspen hauek independenteak diren tasatzaileek egindako tasazioak zuzentzea dakar.

Libreak diren higiezin promozioetan kontutan hartzen diren elementu libreak urtero balioztatzen dira, aditu independenteek egindako tasazio eta azterketen arabera arrazoizko merkaturako balioa ezartzeko. Batzuetan, elementu edo elementu talde homogeneo bakoitzaren egoera kontutan harturik, kitatze balioak erabiltzen dira; dagokionean, eskaera baxua eta bukatu ziren datatik elementu hauek geldo transmititu zirela kontsideratuz.

Zenbatespen horiek urteko kontuak interpretatzeko aintzat hartu behar dira.

Nolanahi ere, higiezinaren sektorearen egungo egoera eta sozietatearen finantza-egoera direla-eta, sozietatearen izakinaren arrazoizko balioaren eta horiek eskudiru bihurtzeko balioaren arteko diferentziak agerian jar litezke.

Departamento de Atención al Cliente de la Sociedad, que están basadas en su experiencia histórica; en la demanda puesta de manifiesto; en la localización de las existencias y en su conocimiento del sector inmobiliario.

El valor razonable de los terrenos y solares se calcula en función de valoraciones realizadas por tasadores independientes no vinculados a la Sociedad. Las valoraciones han sido realizadas, principalmente utilizando el método residual dinámico, y en algunos casos el método de comparación y el método de actualización de rentas, dependiendo de los usos del suelo y de su situación urbanística actual. El método residual dinámico, principal método aplicado para los terrenos, permite determinar el valor de mercado de un terreno edificable como el precio más probable que, en el momento de la tasación pagaría por él un promotor inmobiliario de tipo medio que lo comprar y aprovechara su mejor y mayor uso. En este sentido, la dirección de la Entidad revisa las tasaciones y las hipótesis aplicadas, y ajusta la utilización y aprovechamiento de los suelos a las promociones planificadas en los contratos programas o a su uso más probable. En su caso, estas revisiones, dan lugar a las correspondientes correcciones de las tasaciones de los expertos independientes.

Los elementos libres que se incluyen en las promociones libres son también evaluados anualmente en función de tasaciones y análisis de expertos independientes para la determinación del valor razonable de mercado, utilizando, en ocasiones, y dependiendo de la situación de cada elemento o grupo homogéneo de elementos, valores de liquidación, considerando, en su caso, la baja demanda existente y la lenta transmisión de estos elementos desde la fecha de su finalización.

Estas estimaciones deben tenerse en cuenta en la interpretación de las cuentas anuales.

En cualquier caso, dada la situación actual del sector inmobiliario y la situación financiera de la Sociedad podría ponerse de manifiesto diferencias entre el valor razonable de las existencias de la Sociedad y el valor de realización de efectivo de las mismas.

4.8. MOZKINEN GAINEKO ZERGA

Mozkinen gaineko zergagatiko gastuak edo diru-sarrerak zerga arruntagatiko gastuari edo sarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuagatiko gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia barne hartzen ditu.

Zerga arrunta sozietateak ekitaldi bateko mozkinaren gaineko zergaren zerga-likidazioen ondorioz ordaintzen duen kopurua da. Zergaren kuotako kenkariak eta beste zerga-abantaila batzuek, atxikipenak eta konturako ordainketak izan ezik, eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietakoak diren eta benetan honetan aplikatu diren zerga-galera konpentsagarriek zerga arruntaren zenbatekoa txikiagotzen dute. Mozkinen gaineko zerga arruntagatiko aktiboak edo pasiboak aurreikuspenei jarraiki ordaindu edo zerga-agintarietatik berreskuratuko diren kopuruen arabera balioesten dira; horretarako, indarrean edo onetsita dauden eta ekitaldia bukatzen den datan argitaratzeko dauden araudia eta zerga-tasak erabiltzen dira.

Zerga geroratuagatiko gastua edo diru-sarrera zerga geroratuagatiko aktiboak eta pasiboak aitortzeari eta ezerezteari dagokie. Horien artean denbora-diferentziak daude, alegia, aktiboen eta pasiboen kontabilitate-zenbatekoen eta haien zerga-balioaren arteko diferentzien ondoriozkoak diren eta aurreikuspenen arabera ordaindu edo berreskuratuko diren zenbatekoak; halaber, hala badagokio, konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta fiskalki aplikatu ez diren zerga-kenkariengatiko kredituak barne hartzen dira. Zenbateko horiek erregistratzeko, kasuan kasuko denbora-diferentziari edo kredituari aurreikuspeni jarraiki berreskuratuko edo likidatzeko baliatuko den karga-tasa aplikatzen zaio, ekitaldiaren amaieran indarrean edo onetsita eta argitaratzeko dagoen araudiaren arabera.

Bai mozkinen gaineko zerga arruntagatiko gastua edo diru-sarrera bai geroratuagatiko emaitzetan aitortzen dira, salbu eta zuzenean ondare garbiko partida batean aitortu den transakzio edo gertakari bat sortzen bada; horrelakoetan, partida horren edo negozio-konbinazio baten kargura edo han ordainduta aitortzen da, eta kasu horretan eskuratutako negozioaren gainerako ondare-elementu gisa aitortzen dira, salbu eta eskuratzailaren aktiboak edo pasiboak badira, horrelakoetan aitortpena edo baja ez baitaude negozio-konbinazioaren barruan.

4.8. IMPUESTO SOBRE BENEFICIOS

El gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios comprende la parte relativa al gasto o ingreso por el impuesto corriente y la parte correspondiente al gasto o ingreso por impuesto diferido.

El impuesto corriente es la cantidad que la Sociedad satisface como consecuencia de las liquidaciones fiscales del impuesto sobre el beneficio relativas a un ejercicio. Las deducciones y otras ventajas fiscales en la cuota del impuesto, excluidas las retenciones y pagos a cuenta, así como, en su caso, las pérdidas fiscales compensables de ejercicios anteriores y aplicadas efectivamente en éste, dan lugar a un menor importe del impuesto corriente. Los activos o pasivos por impuesto sobre beneficios corriente, se valoran por las cantidades que se espera pagar o recuperar de las autoridades fiscales, utilizando la normativa y tipos impositivos vigentes o aprobados y pendientes de publicación en la fecha de cierre del ejercicio.

El gasto o el ingreso por impuesto diferido se corresponden con el reconocimiento y la cancelación de los activos y pasivos por impuesto diferido. Estos incluyen las diferencias temporarias, que se identifican como aquellos importes que se prevén pagaderos o recuperables derivados de las diferencias entre los importes en libros de los activos y pasivos y su valor fiscal, así como, en su caso, las bases imponibles negativas pendientes de compensación y los créditos por deducciones fiscales no aplicadas fiscalmente. Dichos importes se registran aplicando a la diferencia temporaria o crédito que corresponda el tipo de gravamen al que se espera recuperarlos o liquidarlos, según la normativa que esté vigente o aprobada y pendiente de publicación al cierre del ejercicio.

Tanto el gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios corriente como el diferido se reconocen en resultados, salvo que surja de una transacción o suceso que se ha reconocido directamente en una partida de patrimonio neto, en cuyo caso se reconocen con cargo o abono a dicha partida, o de una combinación de negocios, en cuyo caso se reconocen como los demás elementos patrimoniales del negocio adquirido, salvo que constituyan activos o pasivos de la adquirente, en cuyo caso, su reconocimiento o baja no forma parte de la combinación de negocios.

Bestalde, zerga geroratuengatiko aktiboak, denbora-diferentzia kengarriekin identifikatuak, soilik onartzen dira baldin eta gertagarritzat jotzen bada sozietateak etorkizunean eraginkor egiteko zerga-irabazi nahikoak edukitzea, horiek ez zerga-emaizari ez kontabilitate-emaizari eragiten ez dion eragiketa batean beste aktibo eta pasibo batzuk hasieran aitortzetik ez badatoz (salbu eta negozio-konbinazio batean). Zerga geroratuengatiko gainerako aktiboak (zerga-oinarri negatiboak eta konpentsatzeko dauden kenkariak) soilik aitortzen dira baldin eta gertagarritzat jotzen bada sozietateak etorkizunean eraginkor egiteko zerga-irabazi nahikoak edukitzea.

Denbora-diferentzia zergapegarri guztietarako aitortzen dira zerga geroratuengatiko pasiboak, ez zerga-emaizari ez kontabilitate-emaizari eragiten ez dion eta negozio-konbinazioa ez den eragiketa batean merkataritza-funtsak edo beste aktibo eta pasibo batzuk hasieran aitortzearen ondoriozkoak izan ezik eta menpeko enpresetan, elkartuetan eta baterako negozioetan egindako inbertsioei lotutakoak izan ezik, sozietateak horietan lehengoratzeko-unea kontrolatu ahal badu eta gertagarria bada aurreikus daitekeen etorkizunean ez lehengoratzeko.

Zerga geroratuengatiko aktiboak eta pasiboak ez dira kentzen eta balantzean aktibo edo pasibo ez-arrunt gisa aitortzen dira, diru bihurtzeko edo likidatzeko aurreikusitako data edozein dela ere.

Kontabilitate-bukaera bakoitzean erregistraturiko zerga geroratuengatiko aktiboak berriro aztertzen dira eta egokiak diren zuzenketak egiten zaizkie, etorkizunean berreskuratzeari buruzko zalantzen arabera. Era berean, bukaera bakoitzean balantzean erregistratu ez diren zerga geroratuengatiko aktiboak ebaluatzen dira eta aitortu egiten dira, berreskuratzea eta etorkizunean zerga-mozkinak ateratzea gertagarri bihurtzen den heinean.

4.9. DIRU-SARREREN ETA GASTUEN AITORPENA

Sozietateak bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru-sarrerak aitortzen ditu bezeroekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, Sozietateak diru-sarrera balioesten du, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea

Por su parte, los activos por impuestos diferidos, identificados con diferencias temporarias deducibles, solo se reconocen en el caso de que se considere probable que la Sociedad va a tener en el futuro suficientes ganancias fiscales contra las que poder hacerlos efectivos y no procedan del reconocimiento inicial (salvo en una combinación de negocios) de otros activos y pasivos en una operación que no afecta ni al resultado fiscal ni al resultado contable. El resto de activos por impuestos diferidos (bases imponibles negativas y deducciones pendientes de compensar) solamente se reconocen en el caso de que se considere probable que la Sociedad vaya a tener en el futuro suficientes ganancias fiscales contra las que poder hacerlos efectivos.

Se reconocen pasivos por impuesto diferido para todas las diferencias temporarias imponibles, excepto aquellas derivadas del reconocimiento inicial de fondos de comercio o de otros activos y pasivos en una operación que no afecta ni al resultado fiscal ni al resultado contable y no es una combinación de negocios, así como las asociadas a inversiones en empresas dependientes, asociadas y negocios conjuntos en las que la Sociedad puede controlar el momento de la reversión y es probable que no reviertan en un futuro previsible.

Los activos y pasivos por impuesto diferido no se descuentan y se reconocen en balance como activos o pasivos no corrientes, independientemente de la fecha esperada de realización o liquidación.

En cada cierre contable se reconsideran los activos por impuestos diferidos registrados, efectuándose las oportunas correcciones a los mismos en la medida en que existan dudas sobre su recuperación futura. Asimismo, en cada cierre se evalúan los activos por impuestos diferidos no registrados en balance y éstos son objeto de reconocimiento en la medida en que pase a ser probable su recuperación con beneficios fiscales futuros.

4.9. RECONOCIMIENTO DE INGRESOS Y GASTOS

La Sociedad reconoce los ingresos por el desarrollo ordinario de su actividad cuando se produce la transferencia del control de los bienes o servicios comprometidos con los clientes. En ese momento, la Sociedad valora el ingreso por el importe que refleja la contraprestación a la que

izatea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoan.

Aitzatespena

Bezero batekin egindako kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak aitortzen ditu enpresak, bezeroari konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen zaionean edo transferitzen zaion heinean, hau da, bete beharreko betebeharrak.

Identifikatutako betebeharrak bakoitzerako (ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea), sozietateak kontratuaren hasieran zehazten du hartutako konpromezua denboran zehar edo une jakin batean betetzen den.

Balorazioa

Ondasunak saltzetik eta zerbitzuak ematetik datozen diru-sarrera arruntak diruzko zenbatekoan balioesten dira, edo, hala badagokio, kontrapartidaren arrazoizko balioan, jasoa edo jasotzea espero dena, horretatik eratorria; kontrako ebidentziarik ezean, bezeroari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, edozein deskonturen zenbatekoa kenduta, prezioa jaitzita, edo sozietateak kredituei eta antzeko beste partida batzuei eman diezazkiekeen interesak kenduta.

Diru-sarreraren barruan ez dira sartzen sozietateak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak entregatzeko eta zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, bai eta hirugarrenen kontura jasotako kopuruak ere.

Hauek dira sozietateak bere diru-sarrerak eta gastuak erregistratzeko jarraitutako irizpide garrantzitsuenak:

Higiezinaren unitateak saltzeagatik diru-sarrerak erosleari ondasunen jabetzaren ondoriozko arrisku eta abantailak eskualdatu zaizkionean aitortzen dira. Higiezinaren merkatuan, jabetza erosleari ematen zaionean (une hori, oro har, eskritura publikoaren formalizazioarekin bat dator) edo, bestela, saltzaileak higiezina eroslearen esku jartzeko egintzaren bat egiten duenean onartzen da aktiboaren arrisku eta onuren eskualdaketa gertatu dela.

espera tener derecho a cambio de dichos bienes o servicios.

Reconocimiento

La Sociedad reconoce los ingresos derivados de un contrato con un cliente cuando (o a medida que) se produce la transferencia al cliente del control sobre los bienes o servicios comprometidos, es decir, las obligaciones a cumplir.

Para cada obligación a cumplir (entrega de bienes o prestación de servicios) identificada, la Sociedad determina al comienzo del contrato si el compromiso asumido se cumple a lo largo del tiempo o en un momento determinado.

Valoración

Los ingresos ordinarios procedentes de la venta de bienes y de la prestación de servicios se valoran por el importe monetario o, en su caso, por el valor razonable de la contrapartida, recibida o que se espere recibir, derivada de la misma, que, salvo evidencia en contrario, es el precio acordado para los activos a transferir al cliente, deducido el importe de cualquier descuento, rebaja en el precio u otras partidas similares que la Sociedad pueda conceder, así como los intereses incorporados al nominal de los créditos.

No forman parte de los ingresos los impuestos que gravan las operaciones de entrega de bienes y prestación de servicios que la Sociedad debe repercutir a terceros como el impuesto sobre el valor añadido y los impuestos especiales, así como las cantidades recibidas por cuenta de terceros.

Los criterios más significativos seguidos por la Sociedad para el registro de sus ingresos y gastos son los siguientes:

El reconocimiento de los ingresos por la venta de unidades inmobiliarias se produce cuando se han transferido al comprador los riesgos y ventajas, de tipo significativo, derivados de la propiedad de los bienes. En el mercado inmobiliario la transferencia de los riesgos y beneficios del activo se entiende producida cuando se produce la entrega de la propiedad al comprador, momento que coincide, en general, con la formalización de la escritura pública, o en su defecto, cuando el vendedor haya hecho algún acto de puesta a disposición del inmueble al comprador.

Higiezinaren sustapen bateko salmenta-unitateei esleitutako kostua zehazteko, saldu beharreko unitate bakoitzari sustapenaren guztizko kostuen zati bat esleitzen zaio; hori ateratzeko, kostuoi elementuaren salmenta-prezioak sustapeneko elementuak, osorik hartuta, saltzeko guztizko prezioan duen pisu espezifikoak aplikatzen zaie. Era berean, higiezinaren unitateak ematen diren unean, hornidura bat aitortzen da salmenta horiei dagokienez egiteke dauden kostuengatik eta emandako etxebizitzetxei lotutako konponketak direla-eta egon daitezkeen gastuak estaltzeko, horien jatorria enpresak gain hartutako egungo betebeharrak bat delako eta horren ondorioz gertagarria delako etorkizunean gastu bat ordaindu beharra sortu ahal izatea, baldin eta gastu horren zenbatespen fidagarria egon ahal bada.

Sustapenaren erreserbei eta salmenta-kontratuei dagokien zenbateko geroratuak, sustapenok ez zaizkionean bezeroari eman eta, beraz, salmenta aitortu ez denean, balantze erantsiko pasiboaren "Bezeroen aurrerakinak" epigrafean erregistratzen dira eta arrunt gisa sailkatzen dira, sustapenaren salmenta aitortzeko aurreikusi den data edozein dela ere.

Errentamendu eraginkorreko akordioaren ondoriozko gastuak sortzen diren ekitaldian egozten zaizkio galera-irabazien kontuari.

Halaber, zerbitzuak emateari lotutako diru-sarrerak zerbitzua balantzearen datan zein mailatan eman den kontuan hartuta aitortzen dira, baldin eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi ahal bada eta gertagarria bada sozietateak horren ondoriozko etekinak jasotzea.

Gastuak galera-irabazien kontuan aitortzen dira etorkizuneko mozkin ekonomikoetan modu fidagarrian neur daitezkeen aktibo baten murrizketarekin edo pasibo baten gehikuntzarekin zerikusia duen jaitziera bat gertatzen denean. Horrek esan nahi du gastu baten erregistroa pasiboaren gehikuntza edo aktiboaren murrizketa erregistratzen den aldi berean egiten dela. Bestalde, gastu bat berehala aitortzen da ordainketa batek etorkizuneko mozkin ekonomikorik sortzen ez duenean edo aktibo gisa aitortzeko beharrezkoak diren betekizunak betetzen ez dituztenean.

El coste asignado a las unidades de venta de una promoción inmobiliaria se determina asignando a cada unidad objeto de venta la parte de los costes totales de la promoción que resulta de aplicar a los mismos el peso específico del precio de venta del elemento sobre el total de venta de los elementos de la promoción en su conjunto. Asimismo, en el momento de la entrega de las unidades inmobiliarias, se reconoce una provisión por los costes pendientes de incurrir en relación a dichas ventas y para cubrir los gastos que puedan producirse por reparaciones relacionadas con las viviendas entregadas en tanto en cuanto las mismas tienen su origen en una obligación actual asumida por la empresa por la cual sea probable que se pueda generar un desembolso económico futuro y siempre que se pueda realizar una estimación fiable de dicho desembolso.

El importe anticipado correspondiente a reservas y contratos de venta de promociones cuando éstas no se hayan entregado al cliente y por tanto no se haya reconocido la venta, se registran en el epígrafe "Anticipos de clientes" del pasivo del balance adjunto, clasificándose como corriente con independencia de la fecha prevista de reconocimiento de la venta de la promoción.

Los ingresos y gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan.

Los ingresos asociados a la prestación de servicios se reconocen igualmente considerando el grado de realización de la prestación a la fecha de balance, siempre y cuando el resultado de la transacción pueda ser estimado con fiabilidad y es probable que la Sociedad reciba los rendimientos económicos derivados de la misma.

Los gastos se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias cuando tiene lugar una disminución en los beneficios económicos futuros relacionado con una reducción de un activo o un incremento de un pasivo que se puede medir de forma fiable. Esto implica que el registro de un gasto tiene lugar de forma simultánea al registro del incremento del pasivo o la reducción del activo. Por otra parte, se reconoce un gasto de forma inmediata cuando un desembolso no genera beneficios económicos futuros o cuando no cumple los requisitos necesarios para su reconocimiento como activo.

Interesengatik eta antzeko kontzeptuengatik diru-sarrerak eta gastuak, oro har, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz aitortzen dira kontabilitateari dagokionez.

Los ingresos y gastos por intereses y conceptos similares, con carácter general, se reconocen contablemente por aplicación del método del tipo de interés efectivo.

4.10. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

Sozietatearen administratzaileek, urteko kontuak formulatzean, honako hauek bereizten dituzte:

- **Hornidurak:** Egungo betebeharrak, legezkoak, kontratuzkoak, inplizituak zein isilbidezkoak, iraganeko gertakizunen ondoriozkoak, estaltzen dituzten saldo hartzekodunak; gertagarria da horiek ezerezteak baliabide-irteera bat eragitea, baina zehaztugabeak dira zenbatekoari edo ezerezte-uneari dagokionez.
- **Kontingentziak:** Iraganeko gertakizunen ondorioz sortutako litezkeen betebeharrak; sozietatearen asmoaren menpe ez dagoen etorkizuneko jazoera bat edo batzuk gertatzea edo ez gertatzea da etorkizunean gauzatzeko baldintza.

Betebeharrari erantzun behar izateko probabilitatea kontrakoa baino altuagoa dela zenbatestea ekartzen duten eta zenbatekoaren arrazoizko zenbatespena egin ahal zaien hornidura guztiak biltzen dituzte urteko kontuek. Haien zuzkidura erantzukizuna edo betebeharra sortzean egiten da, betebeharraren izaeraren arabera egokitzen den emaitzen kontuaren epigrafearen kargura.

Hornidura likidatzeko beharrezkoa den ordainketaren zati bat hirugarren batek itzuliko duela aurreikusten denean, itzulketa aktibo independente gisa aitortzen da, baldin eta ia ziurra bada jasoko dela.

Kontingentziak ez dira urteko kontuetan aitortzen; aitzitik, memoriako oharretan ematen da horien berri, urruntzat jotzen ez diren heinean.

Hornidurak betebeharra ezerezteko edo besterentzeko beharrezkoa den zenbatekoaren zenbatespen onenaren balio eguneratuan balioesten dira, gertakariari eta haren inguruabarrei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontutan hartuta, eta hornidura horiek eguneratzeagatik sortzen diren doikuntzak finantza-gastu gisa

4.10. PROVISIONES Y CONTINGENCIAS

Los Administradores de la Sociedad en la formulación de las cuentas anuales diferencian entre:

- **Provisiones:** Saldos acreedores que cubren obligaciones actuales, ya sean legales, contractuales, implícitas o tácitas, derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/o momento de cancelación.
- **Contingencias:** Obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad de la Sociedad.

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario y que se pueda realizar una estimación razonable del importe de las mismas. Su dotación se efectúa al nacimiento de la responsabilidad o de la obligación con cargo al epígrafe de la cuenta de resultados que corresponda según la naturaleza de la obligación.

Cuando se espera que parte del desembolso necesario para liquidar la provisión sea reembolsado por un tercero, el reembolso se reconoce como un activo independiente, siempre que sea prácticamente segura su recepción.

Las contingencias no se reconocen en las cuentas anuales, sino que se informa sobre las mismas en las notas de la memoria, en la medida en que no sean consideradas como remotas.

Las provisiones se valoran por el valor actual de la mejor estimación posible del importe necesario para cancelar o transferir la obligación, teniendo en cuenta la información disponible sobre el suceso y sus consecuencias, y registrándose los ajustes que surjan por la actualización de dichas provisiones como un gasto financiero conforme se va

erregistratzen da, sortu ahala. Dena den, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga duten hornidurak direnez eta finantza-efektua ez denez nabarmena, ez da inolako deskonturik egiten.

Betebeharra ezerezteko baliabide-irteera bat egoteko aukera aurkakoa gertatzeko aukera baino txikiagoa denean eragiten diete hornidurek emaitzei.

devengando. No obstante, tratándose de provisiones con vencimiento inferior o igual a un año, y el efecto financiero no es significativo, no se lleva a cabo ningún tipo de descuento.

Las provisiones revierten en resultados cuando es menor la posibilidad de ocurrencia de que exista una salida de recursos para cancelar tal obligación que de lo contrario.

4.11. JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Diru-laguntza, dohaintza eta legatu itzulezinak, oro har, zuzenean ondare garbian aitortutako diru-sarrera gisa kontabilizatzen dira hala badagokio horien emakida ofiziala lortzen denean eta emakidarako baldintzak bete direnean edo ez dagoenean horiek jasoko direlako arrazoizko zalantzarik, eta diru-sarrera gisa aitortzen dira galera-irabazien kontuan, horien ondoriozko gastuekin erlazionatuta. Kapitaleko diru-laguntzak, hala badagokio, ekitaldiko emaitzari egozten zaizkio, horien bidez finantzatutako aktiboei dagokien amortizazioarekin proportzioan, edo, hala badagokio, besterentzen direnean, baja ematen denean edo horien narriaduragatik balioespena zuzentzen denean.

Jaso diren eta ekitaldia bukatzen den datan eman ziren jarduerak, proiektuak edo ekintzak gauzatzeko egoteagatik itzulezintzat jotzeko beharrezkoak diren betekizunak betetzen ez dituzten diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak pasibo gisa erregistratzen dira balantzeko "Epe laburreko zorrak - Beste finantza-pasibo batzuk" epigrafean izaera hori lortu arte (18. oharra).

Diruzko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioan balioetsiko dira.

Diru-laguntza, dohaintza eta legatu itzulezinak haien helburuak kontuan hartuta egozten zaizkie emaitzei.

Gastuak finantzatzeko jasotako diru-laguntza ofizialak ekitaldiko diru-sarreratzat jotzen dira eta galera-irabazien kontuko "Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk - Ekitaldiko emaitzari gehitutako ustiapeneko diru-laguntzak" epigrafean aurkezten dira.

4.11. SUBVENCIONES, DONACIONES Y LEGADOS RECIBIDOS

Las subvenciones, donaciones y legados no reintegrables se contabilizan, con carácter general, como ingresos reconocidos directamente en patrimonio neto cuando se obtiene, en su caso, la concesión oficial de las mismas y se han cumplido las condiciones para su concesión o no existen dudas razonables sobre la recepción de las mismas, y se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias como ingresos de forma correlacionada con los gastos derivados de las mismas. Las subvenciones de capital, en su caso, se imputan al resultado del ejercicio en proporción a la amortización correspondiente a los activos financiados con las mismas o en su caso, cuando se produzca la enajenación, baja o corrección valorativa por deterioro de los mismos.

Las subvenciones, donaciones y legados recibidos que a la fecha de cierre del ejercicio no cumplan los requisitos necesarios para ser considerados no reintegrables, debido a estar pendiente a fecha de cierre la ejecución de las actividades, proyectos o acciones para las cuales se concedieron, se registran como pasivos hasta que adquieran tal condición en el epígrafe "Deudas a corto plazo - Otros pasivos financieros" del balance (Nota 18).

Las subvenciones, donaciones y legados de carácter monetario se valoran por el valor razonable del importe concedido.

La imputación a resultados de las subvenciones, donaciones y legados no reintegrables se realiza atendiendo a su finalidad.

Las subvenciones oficiales recibidas para financiar gastos, se consideran ingresos del ejercicio y se presentan en el epígrafe "Otros ingresos de explotación - Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio" de la cuenta de pérdidas y ganancias.

Programa-kontratuagatik diru-laguntzak

Kontratu-Programa bidezko diru-laguntzek, alde batetik, laguntza teknikoaren kostuaren % 100 laguntzen dute diruz sustapen bakoitzerako, halakotzat hartuta eraikuntza-proiektua eta urbanizazio-proiektua idazteko kostuak eta obraren zuzendaritza eta ikuskapena egiteko kostuak, eta, bestetik, urbanizazio-kostu guztiak.

2008ko Kontratu-Programatik, etxebizitza bakoitzeko diru-laguntzaren gehieneko muga ezarri da: 3.000 euro VPO-en kasuan, eta 27.000 euro alokairurako etxebizitza sozialen kasuan. Etxebizitza tasatuek ez dute inolako diru-laguntzarik jasotzeko eskubiderik.

2021ean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Agindua argitaratuta, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitegi-eraikinen beste erabilera-modu batzuk sustatzeko jarduketari buruzkoa, zeinaren helburua baita alokairu babestuko etxebizitzaren parkea sustatzeko neurriak garatzea, aldatu egiten dira lehen aipatutako diru-laguntzak.

Horrela, bada, errentamendu babestura bideratutako hirugarren bati besterentzeko eraikuntza berriko etxebizitzaren sustapenari edo birgaikuntzari dagozkion jarduketa babesgarrietarako, honako laguntza hauek ezarriko dira:

Errentamendurako babes publikoko etxebizitzak sustatzeko urbanizazioari lotutako laguntza teknikoa eta kostuak: laguntza teknikoaren kostu osoaren % 100eraino, halakotzat hartuta eraikuntza-proiektua eta urbanizazio-proiektua idazteko kostuak, eta obraren zuzendaritza eta ikuskapenarenak, gehienez ere 6.000 € etxebizitza bakoitzeko.

Errentamendurako pizgarriak: 75 urteko gutxienezko eperako: 1) 35.000 euroko zuzeneko laguntza erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza bakoitzeko, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren errentekin. 2) 55.000 euroko zuzeneko laguntza erregimen bereziko edo sozialeko babes sozialeko etxebizitza bakoitzeko,

Subvenciones por Contrato-Programa

Las subvenciones por Contrato-Programa subvencionan para cada promoción, por un lado, el 100% del coste de asistencia técnica, considerando como tal los costes de redacción del proyecto de edificación y proyecto de urbanización y de la dirección e inspección de la obra y, por otro lado, la totalidad de los costes de urbanización.

Desde el Contrato-Programa 2008 se fija un límite máximo de subvención por vivienda, que asciende a 3.000 euros en el caso de VPO y 27.000 euros en el caso de Vivienda Social para arrendamiento. Las Viviendas Tasadas no tienen derecho a subvención alguna.

En 2021, con la publicación de la Orden de 7 de diciembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, sobre actuaciones de fomento al alquiler y otras formas de uso de las viviendas y edificios residenciales, que tiene como objeto el desarrollo de las medidas de fomento para el impulso del parque de viviendas en alquiler protegido, se modifican las subvenciones anteriormente citadas.

Así pues, para las actuaciones protegibles correspondientes a la promoción de vivienda de nueva construcción o rehabilitación para enajenación a un tercero con destino a arrendamiento protegido, las ayudas aplicables se fijan como sigue:

Asistencia técnica y costes vinculados a la urbanización para la promoción de viviendas de protección pública para arrendamiento: hasta el 100% del coste total de la asistencia técnica, considerando como tal los costes de redacción del proyecto de edificación y proyecto de urbanización, y de la dirección e inspección de la obra con un límite de 6.000 € máximo por vivienda.

Incentivos al arrendamiento: Para un plazo mínimo de 75 años: 1) una ayuda directa de 35.000 € por vivienda de protección oficial de régimen general, con rentas de viviendas de protección oficial de régimen general. 2) una ayuda directa de 55.000 € por vivienda de protección social de

erregimen bereziko edo sozialeko babes sozialeko etxebizitzan errentekin.

Laguntza horiek sozietateak CP2021etik aurrera (hori barne) sinatutako Kontratu-programetan sartutako promokinei aplikatuko zaizkie.

2023an lehen aldiz errosteko aukeradun errentamenduaren modalitateko kontratua sinatu ostean ibilgetuari gehitu zaizkion elementuak eta horien kostuak honako hauek dira:

b) Actividad de arrendamiento con opción de compra:

Esta actividad iniciada en el ejercicio 2013 procura facilitar el acceso a la vivienda inicialmente en arrendamiento a aquellas personas cuya preferencia de acceso es la de compra. Estas personas que por diversos motivos y principalmente por dificultad de acceso a la financiación no están en disposición de realizar la adquisición en el momento inicial, pero su intencionalidad es la de terminar adquiriéndola en el medio plazo.

También tiene como objeto la puesta a disposición de la ciudadanía de los elementos libres (garajes y locales) mediante una fórmula de arrendamiento más asequible que la compra, con la finalidad última de enajenarlos.

Durante 2023 la incorporación de elementos a las inversiones inmobiliarias ha correspondido principalmente a elementos libres al haberse incorporado tan solo 4 viviendas de entre 37 elementos totales.

Del resto de los 33 elementos libres incorporados 8 han correspondido a locales, y 25 a garajes.

Los elementos incorporados al inmovilizado por haberse suscrito contrato de AROC por primera vez sobre los mismos en 2023 y su coste han sido los siguientes:

2023. URTEA AROC-I ERANTSITAKO ELEMENTUA / ELEMENTOS INCORPORADOS AL AROC EN 2023 (Milaka Euro) / (Miles de Euros)			
ELEMENTUA / ELEMENTO	KOP. / Nº	KOSTUA / COSTE	%
Etxebizitzak / Viviendas	4	468	
Garajeak / Garajes	8	55	
Lokalak / Locales	7	570	
BIZKAIA	19	1.093	82,87%
Garajeak / Garajes	7	57	
Lokalak / Locales	1	58	
GIPUZKOA	8	115	8,73%
Garajeak / Garajes	10	111	
ARABA	10	111	8,39%
GUZTIRA LURRALDEETAN / TOTAL TERRITORIOS	37	1.319	100,00%

Elementu motaren arabera, honako banaketa hau dute:

Por tipo de elemento la distribución es como sigue:

	KOP. / Nº	%
Etxebizitzak Guztira / Total Viviendas	4	10,80%
Garajeak Guztira / Total Garajes	25	67,57%
Lokalak Guztira / Total Locales	8	21,62%
Trastelekuak Guztira / Total Trasteros	-	-
	37	100,00%

Erosteko aukeradun errentamenduarekin eskrituratutako elementuei dagokionez, 2023an 72 kontratari dagozkien erosketa-aukerak gauzatu dira. Zehazki, honako hauek:

En el apartado de escrituraciones de elementos de arrendamiento con opción de compra en 2023 se han ejecutado las opciones de compra correspondientes a 72 contratos cuyo detalle es el siguiente

2023AN SALDUTAKO AROC ELEMENTUAK / ELEMENTOS VENDIDOS DE AROC EN 2023 (Miles de Euros)			
ELEMENTUA / ELEMENTO	KOP. / Nº	ERRENTAK GUTXITUTAKO SALMENTA PREZIOA / PRECIO VENTA NETO DE RENTAS	% SALMENTA PREZIOA / PRECIO DE VENTA
Etxebizitzak / Viviendas	4	514	
Garajeak / Garajes	10	86	
Lokalak / Locales	7	378	
Trastelekuak / Trasteros	1	81	
BIZKAIA	22	978	33,17%
Etxebizitzak / Viviendas	1	172	
Garajeak / Garajes	27	296	
GIPUZKOA	28	468	15,85%
Etxebizitzak / Viviendas	12	1.432	
Garajeak / Garajes	10	72	
ARABA	22	1.504	50,98%
TOTAL TERRITORIOS	72	2.950	100,00%

Elementu motaren arabera, honako banaketa hau dute:

Por tipo de elemento la distribución es como sigue:

	KOP. / N°	%
Etxebizitzak Guztira / Total Viviendas	17	23,61%
Garajeak Guztira / Total Garajes	47	65,28%
Lokalak Guztira / Total Locales	7	9,72%
Trastelekuak Guztira / Total Trasteros	1	1,39%
	72	100,00%

Erosteke aukeradun errentamenduaren modalitateko kontratu berrien sinadurak eta 2023ko erosketa-aukeren gauzatzeak erakusten dute jarduera-adar horrek jarraipena izango duela Visesan; zentzu horretan, etxebizitzaren salmentak gauzatuko dira eta Sozietatearen zorroan dauden elementu libreak erregimen horretan merkaturatuko dira.

La suscripción en el año de nuevos contratos de AROC junto con el ejercicio de las opciones de compra en 2023 muestran la continuidad de esta rama de actividad en Visesa, centrada ya en la materialización de las ventas de las viviendas, y de la comercialización en este régimen de los elementos libres en cartera de la Sociedad.

W

c) Lurzoruen salmentei eta Emandako beste zerbitzu batzuei dagokionez:

Sozietateak Zorrotzaurreko DB-3 partzelaren salmenta lizitatu eta adjudikatu zuen 52,2 milioi euroan 2022an. 2023ko urtarrilean, hirugarren batek erosteko aukera sinatu zen 2024ko urtarrilaren 31ko mugaeguneko lurzoruarengatik eskainitako prezioaren zenbateko baliokidean; zenbateko hori osorik ordainduta dago eta bezeroen aurrerakin gisa erregistratu da Sozietatearen kontuetan. 2024ko urtarrilaren 25an, partzelaren eskriturak eta entrega egin dira, eta, beraz, eragiketa osatu da.

Halaber, Zorrotzaurreko RD-3 partzelaren salmenta lizitatu, adjudikatu eta eskrituratu zaio hirugarren bati, milioi euroko zenbatekoan. Zenbateko hori osorik ordaindu da eta ekitaldia ixtean ez dago zenbatekorik ordaintzeke transakzio horrengatik.

Gaineratu behar da abian den urtean, Koroatzeko proiektuari dagokionez, 523 mila euro kobratu direla Europako Batzordetik, eta zenbateko horrekin amaituta geratu direla proiektu hori garatzeagatik administrazio publikoek Viseari egin beharreko ekarpenak.

d) Lurzoruen proiektu handietan mugari nagusiak:

Sozietateak oraindik lurzoruen inbertsio esangarriak ditu Bolueta, Zorrotzaurre eta Sestaoko Vega Galindo eremuetan, besteak beste. Ondoren, bilakaeraren laburpena ageri da.

Boluetan, 2020an hasitako 190 BOEren sustapena merkaturatzen amaitu da; Halaber, RE-3 partzelan 144 aBOEren fasea eraikitzeko lanak hasi dira, eta horiek 2026an entregatzea aurreikusten da.

Gainera, Boluetako RE-4 partzelako 175 aBOEren azken fasea 2023 Kontratu Programan sartu da. Oinarritzko proiektuaren gauzatzea lizitatu eta adjudikatu da eta behin-behineko kalifikazioa eskuratu da.

c) En relación con Ventas de Suelos y Otros Servicios Prestados:

La Sociedad licitó y adjudicó la venta de la parcela DB-3 de Zorrozaurre por importe de 52,2 millones de euros en 2022. En enero de 2023 se suscribió por un tercero una opción de compra por importe equivalente al precio ofertado por el suelo con fecha de vencimiento de 31 de enero 2024, que ha sido abonado en su integridad y registrado como anticipo de clientes en las cuentas de la Sociedad. En 25 de enero de 2024 se ha producido la escrituración y entrega de la parcela habiéndose completado la operación.

Así mismo, se ha licitado, adjudicado y escriturado la venta de la parcela RD-3 de Zorrozaurre por un importe de 8 millones de euros a un tercero. Este importe ha sido íntegramente abonado y al cierre del ejercicio no se encontraba pendiente cuantía alguna por esta transacción.

A añadir que durante el año en curso respecto al proyecto de Coronación se ha producido el cobro de 523 miles de euros de la Comisión Europea con cuyo importe quedan finalizadas las aportaciones de las distintas Administraciones Públicas a Visesa por el desarrollo de este proyecto.

d) Principales hitos en los grandes proyectos de suelo:

La Sociedad mantiene significativas inversiones de suelo en los ámbitos de Bolueta, Zorrozaurre y Sestao Vega Galindo entre otros. Un resumen de su evolución se muestra a continuación.

En Bolueta, se ha finalizado la comercialización de viviendas de la promoción de 190 VPO iniciada en 2020. Así mismo se han iniciado las obras de edificación de la fase de 144 VPOa en la parcela RE-3, cuya entrega está prevista para el año 2026.

Además la última fase de Bolueta de 175 VPOa en la parcela RE-4 ha sido incorporada al Contrato Programa 2023. Se ha licitado y adjudicado la elaboración del proyecto básico y se ha obtenido calificación provisional.

Boluetako Ituntze Batzordearen urbanizazioari dagokionez, C eta D faseak urbanizatzeko dokumentuak eta proiektuak berrikusi dira, eta C fasearen urbanizazio-obra eta obra-zuzendaritza lizitatu, adjudikatu eta kontratatu da. Urbanizazio-lan horiek 2023an hasi ziren eta 144 aBOEren fasea eraikitzen amaitu arte luzatzea aurreikusten da.

Zorrotzaurren, 2023an proiektuaren mugari nagusiak hauek izan dira:

AI1i dagokionez, UE1n C eta D faseetako urbanizazioa egiten jarraitu da, eta lehendik zeuden eraikinak eraisteko obrak amaitu dira.

AI2ri dagokionez, Zorrotzaurreko 2. Jarduketa Integratuko Egikaritze Unitate Bakarraren Birpartzelazio Proiektuaren testu beteginaren behin betiko onespena lortu da, egikaritze-unitate horretako Ituntze Batzordeak aurkeztua, eta 2024an erregistroan inskribatzea espero da.

Halaber, Zorrotzaurreko Eremu Mistoko 2. Jarduketa Integratuko Egikaritze Unitate Bakarraren Urbanizazio Proiektuaren hasierako onespena eskuratu da.

Birpartzelazioa dela eta, Visesak hitzarmen bat sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin, AI2ko RZ-16 partzelan duen gehieneko partaidetza lortzeko. Partzela horren adjudikazioduna izan da, Visesak partzela guztia osa dezan, aBOE izatera bideratzeko.

AI1eko EU2ri dagokionez, behin betiko onetsi da Zorrotzaurreko Eremu Mistoko 1. Jarduketa Integratuko 2. Egikaritze Unitatearen Itun Sistema eta estatutuak kudeatzeko Hitzarmen Arautzailea.

Gainera, oro har, urbanizazio-kargen likidazioarekin jarraitu da, eta kalte-ordainak eta bestelako hirigintza-kargak ordaindu zaizkio Ituntze Batzordeari eta Kudeaketa Batzordeari. 2023an, lurzoru-proiektuen kantitateari dagokionez, Kudeaketa Batzordearen

En relación a la urbanización de la Junta de Concertación de Bolueta se ha producido la revisión de los documentos y proyectos de urbanización de las fases C y D de urbanización, y se ha licitado adjudicado y contratado tanto la obra de urbanización de la Fase C como de la Dirección de Obra de la misma. Estas obras de urbanización también han tenido inicio en el 2023 y se prevé que se prolonguen hasta el término de la edificación de la fase de 144 VPOa.

En Zorrozaurre, los principales hitos del proyecto en 2023 han sido los siguientes;

En cuanto a la AI1, en la UE1 se ha continuado en la ejecución de la urbanización en las Fases C y D. y finalizado con las obras de derribos de edificaciones preexistentes.

Con relación a la AI2, se ha obtenido la Aprobación Definitiva del Texto Refundido del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución Única de la Actuación Integrada 2 de Zorrotzaurre presentado por la Junta de Concertación de dicha Unidad de Ejecución, y se espera que sea inscrito en registro en 2024.

También se ha obtenido la Aprobación Inicial del Proyecto de Urbanización de la Unidad de Ejecución Única de la Actuación Integrada-2 del Area Mixta Zorrozaurre.

Con motivo de la reparcelación Visesa ha suscrito un convenio con el Gobierno Vasco para la obtención de su participación mayoritaria en la parcela RZ-16 de la AI2 de la que ha resultado adjudicataria al efecto de que Visesa complete la totalidad de la parcela para su destino a VPOa.

Con relación a la UE2 de la AI1, se ha producido la Aprobación Definitiva del Convenio Regulador para la gestión del por el Sistema de de Concertación de la Unidad de Ejecución 2 de la Actuación Integrada 1 del Area Mixta de Zorrozaurre y los Estatutos.

Además, con carácter general se ha continuado con la liquidación de cargas de urbanización mediante el abono de indemnizaciones y otras cargas urbanísticas a la Junta de Concertación, así como, a la Comisión Gestora. En términos cuantitativos

ordainsariak, urbanizazio-obren gauzatzea eta kalte-ordainak ordaindu dira Zorrotzaurren, 2023 ekitaldiari dagozkionak, 5,9 milioi euro inguru, hain zuzen.

Nabarmendu behar da 2022an lizitatutako DB-3 partzelaren salerosketa-kontratua sinatu duela Visesak, eta 2024an eskrituratzea aurreikusten dela. Horrez gainera, RD-3 partzela adjudikatu eta eskrituratu da urtean (ikus aurreko c puntua).

Visesaren proiektuen arloan, 2023 ekitaldian 104 PTEren sustapena merkaturatzen amaitu da SI-2 partzelan (gaur-gaurkoz 3 bakarrik geratu dira saltzeke).

DB-2 partzelako 120 aBOEren sustapenaren lanak hasi dira eta RD-6 lurzatian 66 aBOEko sustapenaren behin-behineko kalifikazioa eskuratu da.

Sestao Vega-Galindon, 1. Egikaritze Unitatea osorik Visesaren jabetzakoa da; bertan, babes ofizialeko mota desberdinetako 343 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, 4 eraikinetan banatuta.

Urbanizazio-lanen lehenengo fasea amaituta dago. 2022an 2. faseko eraikuntza-lanei ekin zitzaion, 180 aBOE egiteko. Lan horiekin batera, UE1ren egiteke zegoen urbanizazioa hasi da, eta planeamenduan jasotako eraikin guztiak amaitzen direnean amaituko da (ohiko bilakaera dute).

Bestalde, 5 etxebizitza eta lokal bat erosi dira, UE2an lehendik zeuden eta eraistea komeni den antolamenduz kanpoko eraikinen jabetza osatzeko sinatutako birkokatze-hitzarmenetatik eratorritako konpromisoak betez. Eragiketa hori 0,5 milioi euroko zenbatekoan egin da.

de los proyectos de suelo en 2023 se han pagado honorarios de la Comisión Gestora, ejecución de obras de urbanización e indemnizaciones en Zorrozaurre referidos al ejercicio 2023 por 5,9 millones de euros aproximadamente.

A destacar que Visesa ha suscrito contrato de compraventa de la parcela DB-3 licitada en 2022 y prevista escriturar en 2024, y adicionalmente ha licitado adjudicado y escriturado en el año la parcela RD-3 (ver punto c anterior).

En lo que a proyectos de Visesa se refiere durante el ejercicio 2023 se han finalizado la comercialización de la promoción de 104 VPT en la parcela SI-2 (quedando solo 3 pendientes de venta a la fecha).

Se ha iniciado la ejecución de las obras de la promoción ubicada en la parcela DB-2 para 120 VPOa y se ha obtenido calificación provisional de la promoción .sita en la parcela RD-6 para 66 VPOa.

En Sestao Vega-Galindo, la Unidad de Ejecución 1, es íntegramente propietaria Visesa, en la que se prevé se edifiquen 343 Viviendas Protegidas de distinta tipología distribuidos en 4 edificios.

Se encuentra finalizada la primera fase de las obras de urbanización. En el año 2022 se produjo el inicio de las obras de edificación de la fase 2 correspondiente a 180 VPOa. Junto con ellas se ha iniciado la urbanización pendiente de la UE1 cuya finalización se producirá a la terminación de la totalidad de los edificios previstos en el planeamiento y que siguen su curso habitual.

Por otro lado, se ha materializado la adquisición de 5 viviendas y un local en ejecución de los compromisos derivados de convenios de realojo suscritos con el objeto de ir completando la propiedad de edificaciones preexistentes en la UE2 y fuera de ordenación que conviene sean demolidos en el ámbito, por 0,5 millones de euros.

e) Hitzarmenen Kudeaketa: Next Funtzak

Gainera, 2022 ekitaldi honetan, Visesak proiektu berri bati ekin zion: Next Funtsetatik eratorritako Birgaitzeko Laguntzen kudeaketa.

2022an, Visesa etxebizitza pribatuen eraikinak birgaitzeko laguntzak kudeatzeko jarduera berria diseinatu, abian jarri eta garatzen hasi zen. Birgaitzeak Europar Batasunak finantzatzen ditu, Next Generation funtsen bidez, eta Espainiako Gobernuaren (Etxebizitza eta Hiri Agendaren Ministerioa - MVAU) eta Eusko Jaurlaritzaren bidez bideratzen dira.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko laguntza-programa hori urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak arautzen du estatu-mailan.

EAEn aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Agindua argitaratu zuen. Horren bidez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen da.

2022ko ekainaren 1etik aurrera, eta Eusko Jaurlaritzak aginduta, Visesa birgaitze-bulegoaren eta laguntza-programa horien erakunde laguntzailearen funtzioak garatzen hasi zen, 2022ko azaroaren 23an bi erakundeen artean sinatutako hitzarmenak jasotzen duen moduan. Hitzarmenean jasotzen denaren arabera, gutxienez 3.000 etxebizitzaren aldeko ebazpenen bolumena lortzea du helburu. Ekitaldi honetan, jarduera hori finkatu egin da Visesan.

2023an, aurrez aurreko 813 hitzordu izan eta 10.606 telefono-deiri erantzun diegu, eta aldeko ebazpena eman zaien 3.029 etxebizitzara iritsi gara; hortaz, proposatutako helburuak gainditu dira.

Jarraian, kudeaketa horren ondoriozko datu ekonomikoak ageri dira:

f) Gestión de Convenios: Fondos Next

Adicionalmente, en este ejercicio 2022 Visesa inició un nuevo proyecto consistente en la Gestión de Ayudas a la Rehabilitación derivados de los Fondos Next.

Durante el año 2022 Visesa diseñó, implementó y comenzó a desarrollar la nueva actividad de gestión de ayudas a la rehabilitación de edificios de viviendas privadas, financiadas por la Unión Europea a través de los fondos Next Generation y canalizados a través del Gobierno de España (Ministerio de Vivienda y Agenda Urbana - MVAU) y del Gobierno Vasco.

Este programa de ayudas del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia viene regulado a nivel estatal por el Real Decreto 853/2021, de 5 de octubre.

Para su aplicación en la C.A.E., Gobierno Vasco publicó la Orden de 21 de junio de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, por la que se establecen las bases y se regula la convocatoria pública de ayudas con relación a los programas de ayudas de rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas para el fomento de su eficiencia energética.

A partir del 1 de junio de 2022, y por encargo de Gobierno Vasco, Visesa comenzó a desarrollar las funciones de oficina de rehabilitación y de entidad colaboradora de dichos programas de ayuda, tal y como recoge el convenio firmado entre ambos el 23 de noviembre de 2022 y que recoge como objetivo alcanzar un volumen de resoluciones favorables de al menos 3.000 viviendas. Esta actividad se ha consolidado en Visesa en el presente ejercicio.

Este año 2023 hemos atendido 813 citas presenciales y 10.606 llamadas telefónicas, y hemos alcanzado las 3.029 viviendas con resolución favorable, superando los objetivos propuestos.

A continuación, se muestran los datos económicos como resultado de esta gestión:

	2022	2023	2024	Guztira / Total
Kudeaketagatik diru-sarrera / Ingreso por gestión (EUR)	492.948	1.098.255	-	1.591.203
Kobrantzak / Cobros (EUR)	-	660.148	521.052	1.181.200
Kobratzeko dagoen diru-sarrera / Ingreso pendiente de cobro (EUR)				410.003

g) Iruzkin osagarriak:

Funtzionamendu-gastuei dagokienez, 2023an kanpo-zerbitzuen kostua 2,3 milioi eurokoa izan da; horrek barnean hartzen du birgaitzeko laguntzak kudeatzeko hirugarrenen zerbitzuak ematea. Jarduera hori 2022aren amaieran hasi zen. 0,5 milioi euroko kontzeptu hori kenduta, zenbatekoa 1,8 milioi eurokoa izango litzateke. Aurreko ekitaldietako dinamikan dago, birgaitzeko laguntzen kudeaketa-zerbitzua ematen hasteko behar diren kanpo-kontratazioak eta horniduren garestitzea kontuan hartzen baditugu (1,8 milioi 2022an eta 1,6 milioi 2021ean).

Aurrekoari eutsiz, eta gastua kontrolatu nahiz baliabideak lerro estrategikoei eraginkortasunez atxikitzearekin bat, Sozietateak aurrekontu-kontabilitatearen sistemarekin lanean jarraitzen du. Hala, arduradun bakoitzari Kudeaketa Planean aurreikusitako helburuak betetzeko partidak esleitzen dizkio (etxebizitza-politikak bete daitezzen Gobernuak adierazitako helburu estrategikoen ildo beretik).

g). Comentarios adicionales:

En cuanto a los gastos de funcionamiento, el coste de servicios exteriores en 2023 ha ascendido a 2,3 millones de euros, que incluye la prestación de servicios de terceros para la gestión de las ayudas a la rehabilitación, actividad iniciada a finales de 2022. Deducido este concepto que asciende a 0,5 millones de euros, el importe ascendería a 1,8 millones de euros, en la dinámica de los ejercicios anteriores si consideramos las necesarias contrataciones externas para iniciar la prestación del servicio de gestión de ayudas a la rehabilitación y el encarecimiento de los suministros (1,8 Millones en 2022 y 1,6 millones en 2021).

En relación con lo anterior y en línea con la estrategia de control del gasto y de asignación eficiente de los recursos a las líneas estratégicas establecidas, la sociedad sigue trabajando con el sistema de contabilidad presupuestaria asignando a cada responsable las partidas necesarias para el cumplimiento de los objetivos previstos en el Plan de Gestión. (alineados con los objetivos estratégicos marcados desde Gobierno para el cumplimiento de las políticas de vivienda).

Halaber, ekitaldian, erregistro elektronikoaren bidez fakturak jaso eta igortzeko sistema ezarri da, eta Foru Ogasunari berehala informazioa emateko sistemaren erabilera finkatu da.

Así mismo, se ha implantado durante el ejercicio el sistema de recepción y emisión de facturas a través de registro electrónico y consolidado el uso del sistema de información inmediata a la Hacienda Foral.

2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUDEAKETAREN EREDUAREKIN BAT KUDEAKETA SISTEMAN AURRERA EGINEZ

Aurreko ekitaldian Visesarren 2021-2024 Plan Estrategikoa onetsi zen. Plan hori bat dator 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Planaren mandatuarekin eta 2022aren amaieran Visesak sinatutako 2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialarekin. 2023an, plan horretan jasotako ekimenak garatzen joan dira.

Estrategia horren hedapen operatiboa landu da, eta ekintza-ildo, proiektu eta ekintza zehatz bihurtu dira, Visesak zehaztutako xedeak eta helburuak lortzen dituela ziurtatzeko.

Ahaleginak egin dira babes publikoko etxebizitzak alokairu babestuaren araubidean sustatzeko eta 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean deskribatutako premiak asetzeko birgaitze- eta berritze-ekintzak gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin eta beste eragile publiko edo pribatu batzuekin koordinatuta, eta bizigarritasun- eta jasangarritasun-irizpideekin jardun da.

Hori guztia etxebizitza-politika publikoa garatzeko EAEn funtsezko eragilea izateko ikuspegiarekin egin da, (i) obra berrien sustapenaren, (ii) birgaitzearen eta (iii) hiri-berrikuntzaren bidez. Horrela, 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Plana eta 2021-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala betetzen lagundu da, zerbitzu publikoa ematen dien kolektiboen beharrianetara egokitutako zerbitzu-zorroa eduki da eta bizigarritasun eta jasangarritasun irizpideekin jardun da.

Horretarako, Kudeaketa Aurreratuarekin konprometituta jarraitzen dugu, Etxebizitza Sailburuordetzaren mandatuak helarazten dizkigun erronkei erantzuteko ezinbesteko tresna delako.

2. AVANZANDO EN EL SISTEMA DE GESTIÓN SEGÚN EL MODELO VASCO DE GESTIÓN

Aprobado en el ejercicio anterior el Plan Estratégico de Visesa 2021-2024, que está alineado con el mandato del Plan Director de Vivienda 2021-2023 y con el Pacto Social por la Vivienda 2022-2036 firmado por Visesa a finales de 2022, a la largo de 2023 se han ido desarrollando las iniciativas en él recogidas.

Se ha trabajado en el despliegue operativo de dicha estrategia, traduciendo a líneas de acción, proyectos y acciones concretas para asegurar que Visesa alcanza las metas y objetivos definidos.

Los esfuerzos se han centrado en cumplir la misión que no es otra que la promoción de vivienda de protección pública en régimen de alquiler protegido y llevar a cabo acciones de rehabilitación y renovación para satisfacer las necesidades descritas en el Plan Director de Vivienda 2021-2023, de forma coordinada con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco y otros agentes públicos o privados, actuando con criterios de habitabilidad y sostenibilidad.

Todo ello con la visión de ser un agente fundamental en la CAPV para el desarrollo de la política pública de vivienda, por medio de la (i) promoción de obra nueva, (ii) rehabilitación y la (iii) renovación urbana, contribuyendo al cumplimiento del Plan Director de Vivienda 2021-2023 y del Pacto Social de la Vivienda 2021-2036, disponiendo de una cartera de servicios adecuada a las necesidades de los diferentes colectivos a los que presta servicio público, actuando con criterios de habitabilidad y sostenibilidad.

Para ello, seguimos comprometidos con la Gestión Avanzada como herramienta indispensable para dar respuesta a los restos que nos traslada el mandato de la Viceconsejería de Vivienda.

VISESAk, 1990ean eratu zenetik, zehaztutako helburuak lortzeko kudeaketa-tresnak eskuratzeko interes espezifikoak erakutsi du. Horretarako, hainbat kudeaketa-tresna erabili ditu, kudeaketa eraginkor eta efizientea bermatzen duten elementu gisa.

2005ean jada, Visesak bere Kudeaketa Memoria EFQM ereduaren arabera aurkeztu zion Euskaliti (Kalitatea sustatzeko Euskal Fundazioa). Sozietatekoak ez ziren kanpo-aditu independenteek egindako erakunde baten kudeaketaren analisi global eta sistematikoan oinarritutako kanpo-ebaluazioaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak erakunde bikainei emandako zilarrezko Qa lortu zuen VISESAk, eta horrela, berrikuntza eta hobekuntzarako kudeaketa aurreratuaren aitortza hura jasotzen zuen lehen etxebizitzaren promotorea izan zen, Euskadin.

Gero, hurrengo denboraldi estrategikoetan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Plan Gidariarekin lerrokatuta, kudeaketa-sistema integratua finkatuz joan da eta, horretarako, planteatzen joan diren errealitate eta erronka berrietara moldatu da.

Hori horrela, arestian aipatu den moduan, Eusko Jaurlaritzak zehazturiko strategiari jarraituz, 2015. urteaz geroztik, Visesak erreferentziazko eredutzat Euskalitek bultzatutako Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) dauka. Izan ere, erakundea oso-
osorik kudeatzeko esparru sistematikoa eskaintzen du.

KAEn asmoa lehiakortasuna hobetzeko erakundea orientatzea da, halabeharrezkoa baita eta azkeneko hamarkadetan eremu desberdinetatik iritsitako kudeaketa-kontzeptuak kontuan hartzen baititu: ezagutzaren kudeaketa, erabateko kalitatea, bikaintasuna kudeaketan, berrikuntza eta enpresaren gizarte-erantzukizuna, besteak beste.

Ya desde su constitución en 1990 Visesa ha mostrado un interés específico en dotarse de herramientas de gestión que garanticen la consecución de los objetivos definidos. Para ello se ha ido haciendo uso de diferentes herramientas de gestión como elementos garantes de una gestión eficaz y eficiente.

En el año 2005 Visesa presenta a Euskaliti (Fundación Vasca para el fomento de la calidad) su Memoria de Gestión según el modelo EFQM. Tras una evaluación externa, consistente en un análisis global y sistemático de la gestión de una organización, realizado por expertos independientes y ajenos a ella, obtuvo el distintivo Q de Plata otorgado por el Gobierno Vasco a las organizaciones excelentes, convirtiéndose así en la primera promotora de viviendas de Euskadi en obtener este reconocimiento de gestión avanzada en innovación y mejora.

Posteriormente, a lo largo de los siguientes periodos estratégicos, y de forma alineada con los diferentes Planes Directores de Vivienda del Gobierno Vasco, se ha ido consolidando el sistema integrado de gestión adoptándolo a las nuevas realidades y retos que se han ido planteado.

Así, como se ha citado anteriormente, siguiendo la estrategia definida desde Gobierno Vasco para este ámbito, desde el año 2015 Visesa cuenta como modelo de referencia para su gestión con el Modelo de Gestión Avanzada (MGA) impulsado por Euskaliti, que proporciona un marco sistémico para una gestión integral de la organización.

El propósito del MGA es orientar a las organizaciones en la necesaria búsqueda de mejoras de competitividad integrando conceptos de gestión aportados desde diferentes ámbitos en las últimas décadas: Gestión del Conocimiento, Calidad Total, Excelencia en la Gestión, Innovación, y Responsabilidad Social Empresarial entre otras.

Ereduak aurreikusten dituen 6 osagai handiak (estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak) kudeaketa-sistema garatzeko oinarriak dira. Horien gainean egituratu behar da gure erakundearen lehiakortasuna eta, ondorioz, hauek lortuko dira:

1. Pertsonengan proiektu partekatuaren kide izatearen sentimendua sorraraztea.
2. Erakundea bezeroekiko orientatzea eta, hartarako balio-ekarpen ezberdina egitea.
3. Erakundearen eremu guztietan berrikuntza aplikatzea.
4. Gizartearekin konpromisoa sendotzea, lehiakortasun-gaitasun aipagarrien hornitzaile garrantzitsua baita.
5. Epe luzerako ikuspegia sortzea eta argi eta garbi definituta dagoen estrategiaren bidez gauzatzea.
6. Modu orekatu eta iraunkorrean talde interesgarri desberdinentzat emaitza onak lortzea.

Eredu honek berea egiten jarraitzen du lan sistematikak berraztertzea eta kudeaketa beharrei doitzeko PDCA logika eta helburuak, ikuspegia, hedadura, ebaluazioa eta ikuskapena finkatzeko REDER logika. Izan ere, Visesak eskainitako zerbitzua hobetzeko funtsezkotzat jotzen ditu, eta, horrenbestez, bere helburuak lortzeko ezinbestekoak dira.

2023 ekitaldian alokairurako 449 etxebizitza babestu berri hastea lortu da (urtearen hasieran helburua 500ekoa zen), eta lurzorua antzemateari dagokionez, 150 etxebizitza eraikitzeke lurzorua lortu da (helburua 400ekoa zen).

Azkenik, 2022. urtean landutako zenbait proiektu eta ekintza azpimarratuko dira; kontuan izan behar da, egoera sozioekonomikoa eta geopolitikoa dela eta, Visesak malgutasunez egokitu behar izan duela egoera berrira, beharrezkoak diren lehiakortasuna eta eraginkortasuna ez galtzearen:

Los 6 grandes elementos contemplados en el Modelo (estrategia, clientes, personas, sociedad, innovación y resultados) son la base para el desarrollo del sistema de gestión sobre el que estructurar la competitividad de nuestra organización, lo que dará lugar a:

1. Generar en las personas un sentimiento de pertenencia a un proyecto compartido.
2. Orientar la organización hacia los clientes realizando una aportación diferencial de valor.
3. Aplicar la innovación en todos los ámbitos de la organización.
4. Potenciar el compromiso con la sociedad, importante suministrador de capacidades competitivas relevantes.
5. Generar una visión de largo plazo que se materialice mediante una estrategia claramente definida.
6. Alcanzar resultados satisfactorios para los diferentes grupos de interés de manera sostenida y equilibrada.

Este modelo continúa haciendo suya la lógica PDCA de revisión y ajuste de sistemáticas de trabajo a las necesidades de gestión y la lógica REDER de fijación de objetivos, enfoque, despliegue, evaluación y revisión de los mismo en cada uno de los aspectos de trabajo, y que Visesa sigue considerando clave para la mejora del servicio prestado y por tanto de la consecución de los objetivos que tiene encomendados.

En el ejercicio 2023 se ha logrado iniciar 449 nuevas viviendas protegidas en alquiler (objetivo a inicio de año de 500) y respecto a la captación de suelo, se ha obtenido suelo para edificar 150 viviendas (objetivo 400).

Para finalizar, se destacan a continuación algunos proyectos y acciones en los que se ha trabajado a lo largo del año 2022 en la que la coyuntura socio-económica y geo-política vivida ha hecho necesario que la organización se adaptara con flexibilidad al nuevo escenario en aras de no perder la competitividad y eficacia necesaria:

•ISO 9001 ziurtagiria berritzea, emaitza bikainarekin; izan ere, auditoria-taldeak ez du iruzkinik egin edo desadostasunik azaldu.

•EMAS ingurumen-erregistroa berritzea, arlo horretako zeharkako kudeaketa hobetzeko Ingurumen Batzordea finkatuta.

•Kudeaketa Memoria berri bat argitaratzea, urtean zehar interes-taldeekin egindako kudeaketa gardenki partekatze.

•Bi urtez behingo Jasangarritasun Memoria argitaratzea, Global Reporting Initiative (GRI) estandarrari jarraituz.

•Gure kudeaketa-printzipioak gidatzen dituzten eta haiei koherentzia ematen dieten politiken definizioan aurrera egitea.

•Europako Next Generation funtsetako birgaitze-laguntzak kudeatzeko jarduera martxan jaritzea.

•Datuen babesaren kudeaketa (emaitza ona izan da).

•"0 gabezia" izeneko proiektuko ekintzak finkatzea, hobekuntzak identifikatzeko eta ezartzeko. Helburua da etxebizitza-beharrei erantzutea, etxebizitzaren kalitatea hobetzea eta eraikuntza- eta erabileraren patologiak salhestea.

•BIM metodologian aurrera egitea: Visasaren estandarrak definitzea eta sistematika berriaren arabera landu beharreko tresna aukeratzea eta prestatzea.

•Delituen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema aplikatzea, prestakuntza-ekintzak barne.

•Gobernu Korporatiboa Kudeatzeko Sistema mantentzea.

•Kapital Zuriketaren eta Terrorismoaren Finantzaketaren Prebentzio Eredua aplikatzen jarraitzea.

•Ihoberen Erosketa Publiko Berdearen eta Ekonomia Zirkularraren taldeetan parte hartzen jarraitzea.

•Alokabiderekin eta Etxebizitza Sailarekin elkarlanean jarraitzea. Helburua da etxebizitza sozialaren prozesua eta produktua hobetzea, proiektu-fasean nahiz obra-exekuzioko fasean, eta ondoren ustiatzea eta mantentzea.

•Renovación del certificado ISO 9001 con un resultado excelente ya que el equipo auditor no ha apreciado observación o no conformidad alguna.

•Renovación del registro medioambiental EMAS con la consolidación de la Comisión Ambiental que mejore la gestión transversal de este ámbito.

•Publicación de una nueva Memoria de Gestión con la que compartir de forma transparente la gestión realizada en el año con los diferentes Grupos de Interés.

•Publicación de la Memoria de Sostenibilidad bienal siguiendo el estándar Global Reporting Initiative (GRI).

•Avance en la implantación de las políticas que inspiran y dan coherencia a nuestros principios de gestión.

•Puesta en marcha de la actividad de gestión de ayudas a la rehabilitación de los Fondos europeos Next Generation.

•Gestión de la protección de datos con resultado satisfactorio.

•Consolidación de acciones del proyecto denominado "Defectos 0" al objeto de identificar implantar mejoras que permitan fijar objetivos de respuesta a la necesidad de vivienda, mejora de la calidad de viviendas y evitación de patologías constructivas y de uso.

•Avance en BIM continuando con la definición de estándares de Visesa formación y selección de la herramienta sobre la que trabajar según la nueva sistemática.

•Aplicación del Sistema de Gestión de Prevención de Delitos incluyendo acciones formativas.

•Mantenimiento del Sistema de Gestión de Gobierno Corporativo.

•Continuar aplicando el Modelo de Prevención del Blanqueo de Capitales y Financiación del Terrorismo.

•Continuar participando en los grupos de I+D+i tanto de Compra Pública Verde como de Economía Circular.

•Continuar con el trabajo conjunto con Alokabide y el Departamento de Vivienda para mejora del proceso y producto de la vivienda social, tanto en fase de proyecto como de ejecución de obra, y orientado a su posterior explotación y mantenimiento.

•Etxebizitza Sailburuordetza buru duen Lurzoru Batzordean parte hartzen jarraitzea. BMSren (Building Management Systems) esparruan lan egitea. Higiezinak monitorizatzeko eta kudeatzeko sistema.

•Industrializazioa – 2022-2036rako Industrializazio Planaren ibilbide-orrian aurrerapausoak eta Sopelako pilotuen sustapena.

•Dokumentuen kudeaketarekin jarraitzea, prozedura operatiboen digitalizazio mailaketa azpimarratuz.

•Eusko Jaurlaritzaren Dokusi dokumentu-kudeatzailearekin hainbat dokumentu-serie integratzen jarraitzea.

•Applikazioen eta azpiegituraren berrikuntza teknologikoa eta eraldaketa digitalarekin jarraitzea. Besteak beste: Intranet korporatiboaren berritze-prozesua hastea, pertsonen kudeaketa-sistema berritzeko proiektua hastea, errekurtso korporatiboak kudeatzeko sistema berri bat ezartzea, fakturazio elektronikoko sistema hedatzeko aurrerapausoak, sarreren eta irteeren erregistroa finkatzea/dokumentu-kudeatzaile digitala, DPZn ekipamendua berritzea.

•Komunikabideen arreta eta ekitaldi publikoak.

•Saldu ostekoari lotutako kopuruak berreskuratzeko proiektua.

Aliantzen atalean, Visesak bazkide nagusiekin harremanetan jarraitzen du, hala nola AVS, Eraikune, APD, Aclima, Ihobe, elkargo ofizial, enpresa-elkarte, teknologia-zentro, unibertsitate, Q-epea eta Euskalitekin.

Amaitzeko, 2023. urtean mugari hauek nabarmendu nahi ditugu, Visesak egindako lanaren adierazgarri:

•Continuar con la participación en el Comité de Suelo liderado por la Viceconsejería de Vivienda Trabajo en el ámbito del BMS (Building Management Systems). Sistema de monitorización y gestión de los inmuebles.

•Industrialización – Avance en el Plan de Industrialización 2022-2036 con su Hoja de Ruta y promoción piloto de Sopelana.

•Continuar con las labores de Gestión de Archivo destacando la progresiva digitalización de los procedimientos operativos.

•Continuar con la integración de varias series documental con el gestor documental de Gobierno Vasco Dokusi.

•Continuar con la renovación tecnológica y transformación digital de aplicaciones e infraestructura, entre otros: inicio del proceso de renovación de la intranet corporativa, inicio del proyecto de renovación del sistema de gestión de personas, implantación de un nuevo sistema de gestión de recursos corporativos, avance en el despliegue del sistema de facturación electrónica, consolidación del registro de entradas y salidas/gestor documental digital, renovación de equipamiento en el CPD.

•Atención de medios de comunicación y diversos actos públicos.

•Proyecto de recuperación de cantidades vinculadas con la postventa.

En el apartado de alianzas, Visesa sigue manteniendo contactos con sus principales aliados, como son AVS, Eraikune, APD, Aclima, Ihobe, Colegios Oficiales, Asociaciones Empresariales, Centros Tecnológicos, Universidades, Q-epea y Euskalit entre otros.

Para finalizar, nos gustaría destacar los siguientes hitos relativos a 2023 que reconocen la labor realizada por Visesa:

- Etxebizitza eta Lurzoruaren Kudeatzaile Publikoen Elkarte (AVS)

Visesak saria jaso du "EAEko alokairu-erregimeneko gizarte-laguntzako etxebizitza publikoaren parkearen bizi-ziklo osoan elektrifikazio berriztagarriaren bitartez jasangarritasuna hobetzea" proposamenarengatik.

- Advanced Architecture Awards –Rebuild:

Viuda de Sainz eraikuntza industrializatuaren proiektu onenaren saria jaso du, Sopelan alokairuko babes ofizialeko 33 etxebizitza (aBOE) sustatzeko Berrikuntzaren Erosketa Publikoko prozesua abian jartzeagatik.

-Jasangarritasunaren aldeko konpromisoa – Eusko Jaurlaritza

Visesak Euskadin jasangarritasunaren alde duen konpromisoagatik jaso zuen aintzatespena, Eko-Kudeaketa eta Auditoretzaren Europako Eskeman (EMAS) erregistratutako ia 100 euskal erakundetako bat delako.

- Asociación de Gestores Públicos de Vivienda y Suelo (AVS)

Premia a Visesa por su propuesta Mejora de la sostenibilidad en el ciclo de vida completo del parque de Vivienda Pública Social en régimen de alquiler de la CAPV mediante la electrificación renovable.

- Advanced Architecture Awards –Rebuild:

Premio Viuda de Sainz al mejor proyecto de construcción industrializada por la puesta en marcha de un proceso de Compra Pública de Innovación para la promoción de 33 viviendas de protección oficial en alquiler (VPOa) en Sopela.

- Compromiso por sostenibilidad - Gobierno Vasco

Reconoce a Visesa por su compromiso con la sostenibilidad en Euskadi, al ser una de las casi 100 organizaciones vascas registradas en el Esquema Europeo de Eco-Gestión y Auditoría (EMAS).

 3. LANGILEEN KUDEAKETA

Visesak 2023aren hasieran 78 lanpostu finko eta iraupen luzeko 6 aldi baterako lanpostu zituen onartuta, etxebizitzak-birgaitzearen eta gizarte-laguntzako etxebizitza eraikitzearen arloko laguntza-programara bideratuak. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparru orokorraren barruan (STEP, Next Generation funtsak).

Plantilla horri txandakako kontratudun erretiro partzialeko egoeran daudenak ordeztuko sortutako 2 lanpostuak gehitzen zaizkio. Horietako bat 2022an formalizatu zen, eta aurten bigarrena formalizatu dugu.

2023aren amaieran, Funtzio Publikoak beste plaza finko gehigarri bat onartu zuen (saldu osteko arduraduna) eta 79 plaza finko izan genituen.

3. GESTIÓN DE PERSONAL

Visesa cuenta a principios del año 2023 con una plantilla aprobada de 78 puestos fijos y 6 temporales de larga duración dedicados al programa de ayudas en los ámbitos de la rehabilitación residencial y construcción de vivienda social, dentro del marco general del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTE, Fondos Next Generation).

A esta plantilla se le suman los 2 puestos generados para relevar a quienes están en situación de jubilación parcial con contrato de relevo. Uno de ellos se formalizó en el año 2022 y este año hemos formalizado el segundo.

A finales del 2023, Función Pública aprueba una nueva plaza fija adicional (Responsable Posventa) y pasamos a tener 79 plazas fijas. La incorporación en

Aurrekontuan sartzea ez da islatuko 2024ra arte, aurrekontu-arrazoiengatik 2024ko lehen hiruhilekoan onartuko duten KEBren behin betiko onespeneren zain.

2023an abian jarri eta behar bezala amaitu dugu 2020an onartutako plazen azken hautaketa-prozesua (sistema-teknikaria); beraz, amaituta daude Visesen lanpostu finko berrien hautaketa-prozesu guztiak.

Bataz besteko plantilla 2023an 85,05 langilekoa izan da, 2022ko 87,15 langilekoa baino 2 pertsona gutxiagokoa. Jaitsiera Koroatze proiektuaren amaierari dagokio eta, ondorioz, proiektuarekin lotutako bi langileen kontratuen amaierari.

2023an, Visen Berdintasun Planaren esparruan (2022-2025), Berdintasun Batzordeak, gure obra- eta zerbitzu-kontratueta goi-mailako titulua duten emakumeen presentziari buruzko azterketa egin ondoren, baldintza-agirietan eta kontratueta klausula berriak sartzea proposatzen du, haien presentzia errazteko. 2023aren amaieran, klausula berriak aurkeztu ziren, Zuzendaritza Batzordeak onar zitzaizkien.

Zuzendaritzaren eta Enpresa Batzordearen arteko akordio garrantzitsuenak bi izan dira:

-Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoen telelanari buruzko uztailaren 18ko 113/2023 Dekretua, onartu ondoren, 2024rako bosgarren akordioa sinatu dugu. Dekretuaren xedea da zerbitzua telelanaren bidez ematea arautzea, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren mendeko enplegatu publikoentzat.

2023rako sinatu zen laugarren akordioan oinarrituta, 39 pertsonak etxetik egiten dute lan 3, 2 edo 1 lanegun, eta beste bi pertsonak asteen behin beren ohiko lantokitik kanpo eta etxetik gertuen dagoen bulego batean lan egitea eskatu dute.

-Gobernu Kontseiluak 2023ko martxoaren 28an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko langile lan-kontratudun finkoentzako erretiro partzialeko planari eta plan hori autonomia-erkidegoko sektore publikora hedatzeari dagokienez, txanda-kontratudun erretiro partzialak abian jartzeko akordio bat sinatu dugu. 2023an, pertsona bakarra gehitu ahal izan zaio modalitate horri.

presupuesto no se reflejará hasta el año 2024 a expensas de la aprobación definitiva de la OCE que por cuestiones presupuestarias lo aprobarán en el primer trimestre del año 2024.

En el año 2023 hemos puesto en marcha y concluido satisfactoriamente el último de los procesos de selección de las plazas aprobadas en el año 2020 (Técnico/a de Sistemas) por lo que quedan concluidos la totalidad de los procesos de selección de las nuevas plazas fijas de Visesa.

La plantilla media en el año 2023 de 85,05 personas, 2 personas menos de los 87,15 del año 2022. Este descenso está relacionado con la finalización del proyecto de Coronación y por tanto de los contratos de las dos personas vinculadas al proyecto.

En el año 2023, dentro del marco del plan de Igualdad de Visesa (2022-2025) la comisión de igualdad, tras el análisis realizado sobre la presencia de mujeres tituladas superiores en nuestros contratos de obras y servicios, propone la inclusión de nuevas cláusulas en pliegos y contratos que favorezcan su presencia. A finales del año 2023 se presentan nuevas cláusulas para su aprobación en el Comité de Dirección.

Los acuerdos más relevantes entre la dirección y el comité de empresa han sido dos:

-Aprobado el 18 de julio el decreto 113/2023, sobre teletrabajo para el personal empleado público del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, hemos firmado el quinto acuerdo para el año 2024. El Decreto tiene por objeto regular de forma general para el personal empleado público dependiente del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi la prestación del servicio mediante la modalidad del teletrabajo.

En base al cuarto acuerdo firmado para el año 2023, se han acogido 39 personas en modalidades de 3, 2 o 1 día de trabajo en casa y otras 2 personas solicitaron trabajar un día a la semana en una oficina distinta a su centro de trabajo habitual y más cercano a su domicilio.

-En relación con el Plan de Jubilación Parcial para el personal laboral fijo de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su extensión al Sector Público de la Comunidad que el Consejo de Gobierno aprobó el 28 de marzo de 2023, hemos firmado un acuerdo para la puesta en marcha de las jubilaciones parciales con contrato de relevo. En el año 2023, solamente una persona se ha podido sumar a esta modalidad.

2023an, Segurtasun eta Osasun Batzordeak enpresa-jardueren koordinazioaren kudeaketan jarri du arreta, bulegoen, obraren eta salmenta-ondokoaren eremuan. Gainera, laneko jazarpena eta gizalegearen aurkako jokabideak prebenitzeko protokolo bat egin du, eta Zuzendaritza Batzordeak onartu du, erakunde osoan aplikatzeko eta zabaltzeko. Era berean, telelanaren eremuan prebentzioa kudeatzeko lan egin du, eta pertsona guztiak aztertu eta prestatu ditu lan-modalitate horren segurtasunaren eta osasunaren arloko arriskuetan.

